Plaza Beltzak euren egoitza berria erabiltzera gonbidatu ditu elkarteak eta norbanakoak. ▸15

Josu Doncel Vicente algortarrak irabazi du CAF-Elhuyarren Doktore-tesian oinarritutako dibulgazio-artikuluaren saria. ▸3

hiruka

Uribe Kostako astekaria

96. zenbakia
2017ko
maiatzaren 25etik
maiatzaren 30era arte

«Beti bihotzez jokatzea da garrantzitsuena»

Gorka Iraizoz Moreno Athleticeko atezainak klub zuri-gorriari agur esan dio, hamar urtean koloreak eta atea defendatzen eman ostean. ▸16-17

AGENDA LEIOA

Lamiako Maskarada

San Maximo jaietan, euskal mitologiako pertsonaiak etorriko dira auzora, Lamiako Maskarada elkartearen ekimenez; antzezkizuna barikuan egingo dute. ▸12

HERRIZ HERRI ERANDIO

Euskara, koska bat gora

Euskara gehiago entzun daiteke kalean, Erandion, 2011n baino gehiago. Hala ere, erdira jaitsi da bere presentzia 2006tik hona.

Joan den astean, Erandioko kaleetan eta plazetan entzuten diren hizkuntzen gaineko azken neurketaren berri eman zuen Soziolinguistika Klusterrak. Emaitza positiboak dira, 2011ko azterketagaz alderatuta; baina, oso gorabeheratsuak aurrekoen ondoan. ▸5

ALBUMA LEIOA

Umore Azoka

10. eta 11. orrialdeak

Bizkaiko amama-aititek Sopelan antolatuko dute euren eguna, ekainaren 3an; Nagusiak elkarteak prestatuko du jaia. ▸7

Uribe Kostako Mihiluze lehiaketaren finala Sopelan jokatuko dute 32 gaztek, bariku honetan, maiatzaren 26an. ▸7

Isuskitza auzuneko mugikortasunaren alternatibak Udalaren eta Aldundiaren artean aztertzea baztertu dute. ▸8

Hirukira Olgetan, umeei begirako denbora-pasen txokoa, aukeran duzue jolasteko, hilabete amaiera guztietan legez. ▸22-23

Ideien Trafikoa

SANTIAGO SAINZ ROBLES
Ciudadanosen bozeramailea
Getxoko Udalean

Gazteon emantzipazioa Euskadin

Txikitatik esan digute arduratsuak izan behar garela, eta asko ikasteko, egunen batean ahalik eta gorenen heltzeko. Ikasketak amaitu eta gero, lana bilatzea eta etxe bat erostea hurrengo pausoa izaten da. Horrela esanda nahiko erraza ematen du, baina teoria alde batera utzita, errealitateak gogor jotzen du eta ikasketak amaitzen dituztenek azkar antzematen dute txikitan kontatu zizkieten kondairak ez direla Disneyren film bat bezala amaitzen.

Krisiak sortu duen egoerari aurre egiteko eta gazteok gurasoen etxetik alde egin ahal izateko proposamen egokiak behar ditugu. Batzuetan konponbidea ez da BOEak eraikitzea eta eraikitzea, baizik eta jadanik ditugun baliabideak hobeto kudeatzea. Getxon adibidez, gutxi gorabehera 3.000 etxebizitza hutsik daude eta horietatik 1.700 inguru benetan hutsik daudenak dira.

Errealitatea aldatzeko politika serioa behar dugu. Horretarako Bizigune Plana (alokairu sozialа) babestu behar da. Plan horren bitartez hutsik daukazun etxebizitza aloka dezakezu eta hilero -gehienez- 525 euro jasoko duzu. Zenbaiti alokairu eskasa begitandu dakieke, baina Jaurlaritzak egin behar du lan guztia? Ez, udalek ere lagun dezakete. Adibidez, Hondarribiko Udalak 2015ean diru-laguntza bat eskaini zuen plan honek ematen zuen diru kopuruari 200 euro gehitzeko. Horrela, merkatuko prezioetara gutxi gorabehera berdindu eta plana erakargarriago bilakatu zuten.

Baina badira beste bide batzuk ere, esaterako, politika fiskal egoki batekin asko egin baitezakegu. Adibidez, OHGZ Bizkaiko Batzar Nagusiak onartu zuen zerga-kuota osoaren %50era arteko hobaria eskaintzea zure etxebizitza Eusko Jaurlaritzak duen Etxebizitza Hutsen Programaren esku utziz gero. Oraindik asko dago egiteko, baina zalantza barik, hau da bidea.

Getxo

Udapasa Artistikoak programa, zabalik

Musika-udaleku horietan izena eman daiteke oraindino, hilaren 31ra arte, 130 euro ordainduta.

Saioak Areetako Andrés Isasi musika-eskolan izango dira.

Maiatzaren 31ra arte egongo da zabalik Udapasa Artistikoak programan izen-ematea. Musikari lotutako udalekuak dira eta Getxoko Andrés Isasi Musika Eskolak antolatzen ditu, Art Libitum elkartearen bidez. Ekimena uztailaren 3tik 14ra bitartean egingo da, astelehenetik barikura, eskolak Areetan duen egoitzan. Hala ere, izen-ematea Areetako zein Algortako bulegoetan egin daiteke. Eskolak 09:30etik 13:30era izango dira eta 4 eta 14 urte bitarteko neska-mutilei zuzenduta daude, zentroan matrikulatuta egonda zein ez. Jardueraren prezioa 130 eurokoa da. Musika oinarritzat hartuta, bestelako diziplina batzuk ere landuko dituzte bertan, berbarako dantza, arte plastikoak, arte eszenikoak, erlaxazio teknikak eta hizkuntzak. Askotariko ekintzak egingo dituzte udaleku horietan; hala ere, denen artean nabarmentzekoa da kurtso amaieran egingo duten ikuskizuna, familia denen aurrean egingo dutena, ikasitako dena erakusteko. Art Libitumek jakinarazi duenez, haur eta gazteak artearen mundura hurbiltzeko apustua da Udapasa Artistikoen proposamena, «gozatzen duten bitartean, euren garapen intelektuala suspertzeko jarduerak eskainiz».

izena emateko: www.getxo.eus
944 646 011 / aisasi@getxo.eus

Askotariko kirolak egiteko gune handi bat egitea proposatu du. GETXOKO PP

Fadura kiroldegia «hobetzeko» proposamena egin du PPk

Algortako Fadura kiroldegia «hobetzeko» proiektua aurkeztu du Getxoko PPk. Proposamenetako bat da frontoietan askotariko kirolak egiteko gune handi bat egitea. «Ideia da banaketa eta lekuen egoera hobetzea», azaldu du Iñaki Gamero bozeramaile popularrak. Ondoko hauek proposatu ditu: rokodromoa eta murrua egitea, paddle pista gehiago egitea, frontoietako bat erabilera askotariko gune bihurtzea, eta harmailak handitzea, besteak beste. Gainera, frontoien eraikinaren «egoera tamalgarria» deitoratu du. Hori dela eta, horiek zaharberritzea eskatu du PPk. Bestalde, gunearen irisgarritasuna «hobetzeko» ere hainbat proposamen egin ditu, esaterako sarbideak, igogailuak eta eskailerak egokitzea. Horiek denak Thinking Fadura parte-hartze proiektuaren barruan sartu ditu PPk.

Algortako nagusiek egoitza berria dute, Juan Bautista Zabalan

AJANE Algortako Nagusien Elkarteak egoitza berria dauka. Izan ere, Getxoko Udalak Juan Bautista Zabala kaleko 6. zenbakian dagoen lokala utzi dio elkarteari, egoitzatzat erabiltzeko, eta euren ekitaldiak bertan egiteko. Eremu horrek 93 metro koadro dauzka, eta hainbat mahai eta telebista bat duen gela bat, bulegotxo bat eta komunak, egokituta. Iñaki Fernández Arriaga AJANEko zuzendaritza-batzordeko buruak eskerrak eman dizkio Udalari lokala erabiltzen uzteagatik, eta, gogoratu duenez, «elkartea duela lau urte sortu zen, eta gaur egun 800 bat bazkide ditu, horietatik 600 emakume. Kopuru horiek elkartearen garapen handiaren isla dira». Imanol Landa Getxoko alkateak urtean zehar egiten duen lanagatik eskerrak eman dizkio AJANE elkarteari orokorrean, eta bereziki, bere zuzendaritza-batzordeari, «Algortan pertsona nagusientzako jardueren egitarau erakargarria eta interesgarria antolatzen duelako».

Getxo



Kaleko hizkuntza erabiltzea da dibulgazio-artikulu bat idazteko zailtasun handiena Doncelen arabera. HODEI TORRES

«Euskara alboratuta egon ohi da zientzian»

Josu Doncel Vicente (Algorta, 1985) matematikariak irabazi du CAF-Elhuyarren Doktore-tesian oinarritutako dibulgazio-artikuluaren saria, *Sareen arteko komunikazioa bizkortzea: bide optimoa aurkitzen duten algoritmoak* lanagaz.

IKER RINCON MORENO

Frantziako zenbait ikerketa-zentro eta unibertsitatetan lanean jardun ostean, EHUko Matematika Aplikatua eta Estatistika Sailean irakaslea da gaur egun Josu Doncel. Frantzian zegoela, doktore-tesian oinarritutako dibulgazio-artikulua aurkeztu zuen CAF-Elhuyar sariketara, eta bere kategoriako saria irabazi du.

Bejondeizula, zelan hartu duzu saria?
Oso pozik. Aproba egiteko bidali nuen, baina ez nuen espero ezer irabaziko nuenik, badakidalako jende asko dagoela dibulgazioan lan egiten Euskal Herrian. Matematikaz hitz egitea asko gustatzen zait, arlo askotan presente dagoela ikustarazteko jendeari. Aurkeztutako testua nire tesian oinarritutako dibulgazio-artikulua izan da, hau da, matematika aplikatua telekomunikazio-sistemetan.

Sareen arteko komunikazioak bizkortzeko aukera berri bat aurkezten duzu artikulu horretan, ezta?
Bai; grafo-teorian oinarritutako algoritmo bat proposatuta, konturatu gara hemendik New Yorkera (AEB) mezu elektroniko bat bidali nahi badugu, komenigarria litzatekeela, adibidez Brasilera bidaltzea lehenengo, eta hango ordenagailu batetik bidaltzea mezu hori gero; hau da, zuzenean bidali beharrean, komenigarria izan daitekeela beste toki batetik egitea. Modu horretan, bidalketak azkartu egin genitzake, erdiko edo bitarteko ordenagailuak erabiliz, puntu batetik bestera bidaltzeko. Hala, frogatu dugu gaur egungo Internet sareak egiten duena ez dela optimoena; badago beste modu bat komunikazioak hobetuko lituzkeenak.

Matematikaria izanda, egindako lanaren nondik norakoak jendarteratzea garrantzitsua da, ezta?
Gizarteari ez ezik, beste zientzialariei baita ere. Nik uste dut beste zientzialari batzuek ez dituztela artikulu osoak irakurtzen; goi-mailako aldizkarietan daudenak irakurriko dituzte, baina interes handikoa izan behar da justu nik argitaratu dudan aldizkari horren aurrean egoteko eta hori irakurtzeko. Hau beste modu bat da zientzialariek nik egindakoa ikus dezaten, eta agian beste ideia bat hartzeko euren arloan funtzionatuko lukeena.

Zeintzuk zailtasun ikusten dituzu dibulgazio-artikuluak idazteko orduan?
Kaleko hizkuntza erabiltzea, batez ere. Gauzak ahalik eta normaltasun handienarekin azaltzea, baina hitz oso konplikatuak erabili gabe. Honako galdera egiten diot neure buruari: nola azaldu gai matematiko bat jendeak uler dezan? Edozeinek, nahiz eta matematikaria ez izan, ulertu behar du zertaz hitz egiten ari garen eta zer egin dugun; hori zaila izaten da. Matematikariok ohituta gaude matematikarion hizkuntzan hitz egitera, eta ez gaude ohituta horretaz urruntzera, edozein zientzialariri gertatzen zaion bezalaxe.

Euskaraz egitean, gainera, zailtasuna areagotzen da halakoetan?
Bai, noski. Zientzia-munduan den-dena ingelesez egiten da, ahalik eta jende gehienarengana heldu ahal izateko. Hala ere, askotan pentsatu dut euskara alboratuta egon dela mundu honetan, eta landu beharreko zerbait dela uste dut.

Irakasle hasi zara oraintsu EHUn. Zelan egokitu zara jardun horretara?
Unibertsitateko eskolak dibulgazio-lana egiteko beste modu bat dira, orain arte lortutako jakintza ikasleei transmititzeko, alegia. Oso gogoko dut, ikasleekin dagoen interakzioa oso interesgarria da niretzat.



Zientzia-pilulak

EDUARDO SAN ANDRES ARANA
Matematika irakaslea

Kaixo, ba al duzu Selz karamelurik?

Iragana dagoeneko ez da. Etorkizuna oraindik ez dago, eta akaso ez da sekula egongo. Gaur, une honetan, hau irakurtzen duzun bitartean, denborak atzamarren artetik ihes egiten dizu, likido garden eta harrapaezin bat bezala. Baina batzuetan bizipen batek marka fisiko bat uzten du neurona zirkuitu batean eta horrela denborak, nolabait, gorputza hartzen du.

Nerabe nintzenean, orain dela... bale, ez ditut urteak zenbatuko, lagunekin ematen nituen orduak Algortan (Bidarte, Pele, Bilbo, Jon, Aitz, Iturri, Antuan). Antzinako Algortako tren geltoki ondoan goxoki denda txiki bat zegoen, eta bertara joaten ginen sarritan. Besteok metro batzuetara itxaroten genuen bitartean, gutako bat dendara gerturatzen zen: «-badituzu Selz goxokiak?. -Ez, ez ditut. -Ados, agur». Handik bi minutura, beste bat: «-Badituzu Selz goxokiak? -Ez, ez ditut. -Ados, agur». Eta horrela hiru edo lau aldiz. Saltzailearen pazientzia agortzen hasi eta lepoko zaina eztanda egiteko zorian zeukanean, korrika eskapatzen ginen izugarrizko barreen artean eta gixajoa bakean uzten genuen... hurrengo asteburura arte.

Bururatu zait Interneten goxoki horien osagaiak bilatzea: azukrea, glukosa, azido zitrikoa eta tartarikoa, sodio karbonato azidoa eta esentziak,... dena kimika. Baina nire ortuan landatzen ditudan tomateen osagaiak ere kimika hutsa dira: ura, bitaminak, azido nukleikoak, likopenoa... dena da kimika. Ez dut ukatuko elikagai batzuen hainbat gehigarri kaltegarriak direnik, baina askotan egiten dugun kimika/kutsadura parekatze hori okerra eta bidegabekoa da.

Gaurko zutabe hau haurtzaroari eta nerabezaroari dedikatua dago, gizaki ororen benetako aberri horri. Goraintziak, lagunok!

Getxo

Dozenaka ikasle batu ziren patioan «errebalidarik» ez dutela gura adierazteko. © IKASLE ABERTZALEAK

«Errebalidari» planto egin diote ikasleek

Oraindino titulua lortzeko lotesleа ez bada ere, Aixerrota BHIko DBH 4. mailako ikasle denek «errebalidari» planto egin zioten astelehenean, hilaren 22an. Jakinarazi dutenez, «ikasle bakar bat» hurbildu zen ikastetxera azterketa egitera, «baina inor ez zegoela ikusita, alde egin zuen». San Nikolas ikastolako DBH 3. eta 4. mailako hainbat ikasle ere batu ziren mobilizaziora. Aurreko astean, azterketa horrekiko kontrakotasuna adierazi zuten Artaza-Romo BHIko ikasleek ere. Ekimenegaz, probaren kontra egiteaz gainera, LOMCEri ere planto egin diotela aldarrikatu dute gazteek. Helburua da LOMCEk ezarri dituen errebaliden proba pilotuei uko egitea eta ezetza adieraztea, «azterketa arrotzak direlako eta ez dutelako guk eraiki nahi dugun hezkuntza-sistema islatzen». Horren aurrean, «Euskal Eskola Nazionalaren alde urratsez urrats» borrokatuko direla ohartarazi dute ikasleek.

Jaialdi independentista egingo dute zapatuan Txorimalon

Algortako Ernai gazte-antolakundeak ikasturteari amaiera emateko jaialdia egingo du hilaren 27an, zapatuan. Batzeko hitzordua 18:00etan ipini dute, Getxoko Txorimalo gaztetxean, «Piztu sugar independentista» goiburuagaz. Sarrera 4 euroan egongo da. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, 18:00etatik aurrera, jolasak, musika eta giro «ezin hobea» egongo da gune autogestionatuan. Hala, askotariko jolasakaz hasiko dute eguna. Horien ondoren, kontzertuen txanda izango da: 20:00etan, Erasoka talde algortarra taularatuko da; ostean, 21:00etan, ekitaldi politikoa egingo dute; jarraian, Kupoavetechen eta Rotten XIII taldeen emanaldia izango da.

Ia 120.000 euro banatu dituzte kultur taldeen artean

Getxoko Udalak 119.000 euro banatu ditu udalerriko hamazortzi kultura-talderen artean, euren jarduerak gara ditzaten laguntzeko. Aurtengo diru-laguntzen kopurua iazkoa baino % 5 handiagoa izan da, Gobernu-taldearen (EAJ eta PSE-EE) eta EH Bilduren arteko akordioari esker. Gainera, jakinarazi dutenez, «baldintza ekonomikoek horrela ahalbidetzen badute», urteko % 5eko igoerari eutsiko diote legegintzaldiaren amaiera arte. Udalaren arabera, elkarte horiek duten egitekoa «funtsezkoa» da udalerriaren kultur eskaintza indartzeko, baita elkartegintza bultzatzeko ere. Koldo Iturbe Kultura zinegotziak adierazi duenez, «udalerriaren eskaintza kulturala, hein handian, bertako kultura-elkarteei esker egiten da, eta horregatik udalerri dinamiko, aktibo eta parte-hartzaileago batentzat funtsezkoa da euren ohiko jarduera babestea».

Baserri-mundua hurbiltzeko, Talka Eguna Itzubaltzetan

Aurton ere, baserri-mundua herrira hurreratzeko Talka Eguna antolatuko du Itzubaltzeta/Romoko Branka kultur elkarteak; ekainaren 3an ipini dute hitzordua, zapatuan. Hala, goizean goizetik, Itzubaltzeta auzoa baserri-giroan murgilduko da, sukaldaritza-txapelketagaz eta askotariko ekimenakaz. Ondoren, 14:00etan, txapelketaren platerak aurkeztuko dituzte, eta, horren ostean, 15:00etan, herri-bazkaria egingo dute, Gobelondon. Lehiaketan parte hartu gura duenak aldez aurretik izena eman beharko du, maiatzaren 26a baino lehenago. Nork bere materiala eroan beharko du, berbarako mahaiak eta suak; ostera, osagaiak antolatzaileek emango dituzte.

Erandio

Euskara, koskatxo bat ozenago

Euskara gehiago entzun daiteke kalean, Erandion, 2011n baino gehiago. Hala ere, 2006tik hona, erdira jaitsi da bere presentzia.



Joan den astean, Erandioko kaleetan eta plazetan entzuten diren hizkuntzen gaineko azken neurketaren berri eman zuen Soziolinguistika Klusterrak. *Hizkuntzen ahozko kale-erabileraren neurketa Erandion* goiburupeko neurketa hori 2016ko irailean egin zuten, Euskal Herriko beste 128 udalerritan ere egin zen, zazpigarren kale-neurketaren barruan.

Daturik esanguratsuena da Erandioko kaleetan eta plazetan herritarren % 2k egiten duela euskaraz. Euskaltzaleek datu positibo legez ikus dezakete, 2011ko kopurua % 1,3 baitzen. Horrenbestez, bost urteren bueltan, % 53,85eko igoera izan du euskal hiztunen presentzia aktiboak. Baina, datu historikoetan apur bat atzera eginez gero, gaur egungo euskararen erabilera oso urrun dago 2006ko kale-erabileraren neurketako % 4,2 indizetik. Hala, hamar urtean, % 52,38 jaitsi egin da erregistratutako euskararen presentzia udalerrian. Askoz atzerago eginez gero, akordura ekar daiteke 1989ko euskararen erabilera % 1ekoa zela Erandion. Beraz, ordutik hona, bikoiztu egin da euskaraz jarduten dutenen kopurua. Bestalde, oso bitxia da Erandiogoikoan azken bi kale-neurketetan jasotako datuen aldaketa. 2011n, % 1,2k egin zuen euskaraz, pasa den irailean, ostera, % 10,2. Dena den, komeni da datuak erlatibizatzea, azken emaitzek duten akats-tartea % 1,74koa baita. Azken neurketan, tarte hori ahalik eta txikiena izan zedin ahalegindu ziren Soziolinguistika Klusterra eta Erandioko Udala. Horren adierazlea da 2011n 2.231 solaskideren hizkuntza-ekintzak neurtu zituztela, eta, ostera, iaz askoz handiagoa izan zela hartutako lagina: 7.067 pertsona. Bestalde, 2011ko erroldaren arabera, urte hartan Erandioko biztanleen % 24,3 zen euskalduna. Beraz, Erandion espero zitekeen erabilera-tasa % 3,9koa litzateke, 2011ko erroldaren datuak kontuan hartuta, eta Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi*k sortu zuen euskararen erabilera estimatzeko eredu matematikoaren arabera.

Goikouriarentzat, 8 urte eta erdiko inhabilitazio-eskaera

Joseba Goikouria Erandioko alkatearen aurkako zigor-eskaerak berretsi zituzten Fiskaltzak eta akusazio partikularrak, pasa den martitzeneko epaiketan. Erandiogoikoko Recuperaciones Esma SL txatartegia udal-lizentzia barik 14 urtez funtzionatzen utzi zutelakoan, hutsegite-prebarikazioa egotzi zioten berari eta Asier San Nicolás eta Itziar Koba Hirigintza zinegotzi ohiei. Hala akusazio biek zortzi urte eta erdiko inhabilitazio-zigorra eskatu dute akusatu bakoitzarentzat. Goikouriak akusazioak ezeztatu zituen martitzenean, Bilboko 2. zigor-epaitegiko bistan; «ez diot inori iradoki enpresari mesede-traturik eman ziezaion, inondik inora», adierazi zuen. Hala, defentsek hiru akusatuen absoluzioa eskatu zuten. Epaiaren begira geratu da auzia.

Potxingoak kaleetan

ANA TERESA ESCUDERO BIZKARGUENAGA
Kazetaria

Ez da zenbaki kontua

Ez da zenbaki kontua, ala, bada? Zertarako balio dabe matematikek? Lehenago musika zan hari baten egoana, gero filosofía, kirola eta azken egunotan matematikak ezbaian. Eragiketa erreza egingo dot. Lau autobus, 200 bat lagun. Horreetxek dira Altzagako familien aurtengo txangoaren zenbakiak. Igaz aldiz, ez zan bigarren autobusa bete be. Plana gertukoagoa zala, plana hobea zala, edozelan, hirukoitza! Ikastolaren alde lanean dagozan gurasoentzat matematikek, zenbakiok kasu honetan, balio haundia daukie. Bizitzari aplikatutako matematika zalantzarik barik! Gurasoen arteko kohesioa, lanean jarraitzeko adorea eta harrobia!

¡Nunca más! irudi-erakusketa ikus daiteke Astrabuduan

Joan den martitzenean, *¡Nunca más! Imágenes de guerra (1936-1939)* erakusketa zabaldu zuten Erandioko Josu Murueta kultur etxean. Memoria historikoa lantzeko ekimena ekainaren 9ra arte bisitatu ahal izango da, 08:00etatik 22:00etara. Denera, 22 horma-irudik eta hainbat objektugaz (presoen zerrendak, gutunak, isunak eta abarrak) atondutako sei beira-arasek osatzen dute erakusketa. Euskal Abertzaletasunaren Museoak antolatu du erakusketa, oroimen historikoa berreskuratzeko asmoz. Gainera, eguen honetan berbaldia eskainiko du Aitor Miñambresek, Burdin Hesiaren Oroimenaren Museoko kideak. Ekitaldia Josu Muruetan egingo da, 19:30ean.

Takolosek zenbait ekimen bertan behera utzi dituela iragarri du

Aste-akabu honetan, Food Truck edo janari-furgoneten azoka egitekoa zen Takolos irrati-kluba. Jon Erramon Fano elkarteko kideak adierazi zuenez, ekimenak etekinik sortuz gero, horiek Ashubi elkarteari emango zizkioketen. Huntington izeneko gaitza ikertzeko Bizkaiko elkartea da Ashubi, eta pasa den apirilean egindako putxera-erronkaren onuraduna izan zen. Dena den, Takolosek iragarri du janari-azoka hori bertan behera utzi duela, eta kexu agertu da beste herri batzuetan baliagarriak diren paperak Erandion balio ez dutelako. Bestalde, jakinarazi dute V. Nazioarteko Putxera Lehiaketa ere ez dutela egingo; datorren urriaren 21ean egiteko asmoa zuten.

txakoli mota gane txakolina
Leioa-Unbe errepidea 34
(Akarlanda parkea) Goierri-Erandio
94 467 00 07 · www.txakolimotagane.com

GURE ETXEA taberna
HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

Leioa

Txikienek tailerrakaz, buruhandiakaz eta gaztelu puzgarriakaz gozatzeko aukera edukiko dute. © LEIOAKO UDALA

Egitaraua

Maiatzak 26, barikua

16:30 Txupinazoa.

17:30 Maskaradaren lehenengo ekitaldia, Putzegilearen biribilgunetik.

18:30 Maskaradaren bigarren ekitaldia, txosnaren ondoan.

22:30 Maskaradaren hirugarren ekitaldia, elizaren ondoan.

00:00 Dantzaldia, Sukar taldeagaz.

Maiatzak 27, zapatua

08:00 IV. Lapiko Txapelketa. Txosnan izena eman daiteke.

18:00 Euskal dantzak, eliza ondoan.

20:30 Mozorro-lehiaketa, txosna ondoan.

22:30 Diego Arjona umorista.

00:00 Dantzaldia, Galker taldeagaz.

Maiatzak 28, domeka

11:00 Umeentzako gaztelu puzgarriak.

13:00 Herri-kirolak, Inaxio Perurenagaz.

17:30 Playback-ak.

18:00 Guatekea, Sergio Ibarguenegaz.

21:00 Azken traka.

Lamiakok emango die hasiera udalerriko jaiei

San Maximo jaiak maiatzaren 26tik 28ra arte ospatuko dituzte leioztarrek; ume eta helduentzako ekitaldiak egongo dira.

Sanjuanak heldu artean, jai-giroan murgiltzea aukeran izango dute leioaztarrek eta kanpotarrek, aste-akabu honetan; izan ere, Lamiakoko sanmaximoakaz hasi ohi da Leioan udako ospakizunen zorabioa. Hala, barikutik domekara bitartean, hamaika ekitaldiz gozatzeko aukera egongo da bertan: lapiko-txapelketa, mozorro-lehiaketa, bingoa eta guatekea egingo dituzte, besteak beste. Gauean, berriz, dantzaldietan gerri mugitu ahal izango dute Lamiakora hurbiltzen direnek. Akorduan izan, lehenengo egunean, ohi den legez, euskal mitologiako pertsonaiek bisitatuko dutela auzoa, Lamiako Maskarada elkarteko lagunek gonbidatuta; antzezkizuna arrastian eta gauean izango da.

Jaietan sexu-erasorik ez!

Betiko Ikastolak irabazi du jaietako sexu-erasoen aurkako bigarren kartel-lehiaketa, Leioako Udalaren Berdintasun Sailak jakinarazi duenez. Horrez gainera, Artatza-Romo BHI ikastetxeak aipamen berezia lortu du. Agintari leioaztarrek azaldu dutenez, kanpaina horren helburua da «emakumeenganako sexu-erasoen kontrako jarrera agertzea, eta, bide batez, hiritarrak gaiaren inguruan sentsibilizatzea». «Indarkeria mota honekiko tolerantzia maila gutxitu» gura dute, «jaietako testuinguruan ere bai». Ekimenaren goiburua hurrengo hau da: «Jaia gurea gauean ere bai: Leioa tratu onen alde eta eraso sexisten aurka». Ikastetxeek kanpaina horretan izandako «erantzun ona eta inplikazioa» ere eskertu ditu Berdintasun Sailak.

Jolasen Nazioarteko Egunaren harira, ekitaldiak Artatzan

Haziz Hazi sareak JolasGUNE jaialdiaren bigarren edizioa egingo du Leioako Artatza parkean, domeka honetan, maiatzaren 28an. «Bizitza osoan, jolasa, ikaskuntzarako eta garapenerako tresna nagusia» aldarrikatu gura dute horren bitartez; egun berean da eta Jolasen Nazioarteko Eguna. Bide batez, «pertsonei begirune handiagoa dien heziketa» bultzatu gura dute Haziz Hazi sarean batzen diren sendiek eta hezitzaileek; «pertsonen benetako beharrizanei eta bakoitzaren erritmo bereziari egokitutako heziketa» eskatzen dute. Hala, berbaldiak, tailerrak, jolasak, musika, janari-kamioa edo foodtruck-a, azokatxoa eta ezustekoak egongo dira JolasGUNE jaialdian, 11:00etatik 19:00etara. Gainera, indaba-jana antolatu dute; 6 euro ordaindu beharko ditu izena eman gura duen lagun bakoitzak.

info+: hazizhazi.wordpress.com

Zerbitzu gehiago, udal-bulegoan eta udaletxean

Berarekiko eginbeharrak herritarrei errazten jarraitu gura du Udalak; hori helburu, Gazteluetako eta udaletxeko bulegoak Herritarrentzako Arreta Zerbitzu Integral bihurtu ditu. Aurrerantzean, horietan egin ahal izango dira udal-gestio gehienak: hirigintza, kirolak, ordainketak... Agintari leioaztarrek azaldu dutenez, «bilketa exekutiboa beheko solairura pasatzea baino ez zaigu falta, udaletxean. Azken astean, umeentzako txokoa ere ipini dugu, gurasoek izapideak egin bitartean, eurek jolasteko». Gaineratu dutenez, «gutxika, izapideen kopurua handitzen eta sinplifikazio administratiboa indartzen joango gara».

Krisalida

JOXE BELMONTE F. DE LARRINOA
Idazlea

Kukuak oker jo zion!

Alua, zakila, alua, ... neska, mutila, mutila. Bus laranjak engainatu nahi izan gintuen *engaina ez zaitzatela* lelopean. Kukuak oker jo zion ordea ultraeskuindar gurpildunari. Euren asmoak bestelakoak baziren ere, kanpaina horrek transexualitatearen gaineko interesa eta kontzientzia piztu zituen ordura arte halakorik ez genuenon artean.

Egun horietan EITBren *Ur Handitan* programan transexualitateari buruzko saio interesgarria ikusi genuen; lantokian, *Errespetuz - Pertsona Transexualen Defentsa eta Integraziorako Euskal Elkartea* hartu genuen. Chrysallis-en kanpainak berak baino gehiago egin du bus laranjak transexualen alde.

Sopela

Bizkaiko amama-aititen jaia

Topaketak lurraldeko adinekoak batu gura ditu, elkarregaz jai-egunaz goza dezaten.

Nagusiak elkarteak antolatuko ditu azoka, ibilaldia, pailazoen emanaldia, herri-bazkaria eta dantzaldia.

Sopelan egingo dute aurten Bizkaiko Nagusien Eguna, ekainaren 3an, zapatuan. Lurraldeko adinekoak batu eta denak elkarregaz eguna pasatzeko helburua dauka Nagusiak elkarteak prestatutako topaketak. Aurtengoa bigarren edizioa izango da; eta iaz Balmasedan egindako lehenengo edizioak izandako arrakasta errepikatzea espero dute antolatzaileek. Nagusien edo aitita-amamen gozamenerako eguna izango da. Hala, 10:00etatik aurrera, ekintza ugari egongo dira; berbarako nekazaritza-produktuen erakusketa eta dastaketa, Sopelako kostatik bisita gidatua, txu-txu trena, pailazoen emanaldia, pilota-partidak eta txistulari, trikitilari zein dultzaineroen emanaldiak. Gainera, herri-bazkaria egingo dute; eta, ostean, amaitzeko, dantzaldia egongo da. Jaialdia 20:00etan amaituko da.

Elkarteen federazioa

Nagusiak elkarteak ez dauka irabazi-asmorik; Bizkaian sortu diren erretiratuen elkarteak batzen ditu. Denera, 138 taldek eta 50.000 kidek baino gehiagok osatzen dute. Besteak beste, elkarteetako zuzendaritza-taldeei laguntza teknikoa, prestakuntza eta antolakuntzako egituraketa eskaintzea da erakundearen helburuetako bat. Horrez gainera, bazkideen garapen pertsonala bultzatu gura du, «betiere pertsonak zahartzen diren heinean, beren bizi-kalitatea hobetzeko».

info+: www.nagusiak.org

Sopelako pandero-joleek irrintzi-ikastaroa egingo dute

Hutsetik hasi gura dutenentzako irrintzi-ikastaroa eskainiko du Sopelako Panderojoleak elkarteak, gaur, eguena, maiatzaren 25ean. Ekainaren 8an, ostera, horren jarraipena egingo dute: «Bigarren ikastaro horretan, aurrekoa egin duenak edo irrintziak botatzeko teknika hobetu gura duen edonork izena eman dezake», azpimarratu dutenez. Ikastaroa hasten den egunera arte izena eman ahal izango da. Hala ere, «eskertuko genuke albait arinen izena ematea», jakinarazi dute antolatzaileek. Gehienez, 15 pertsonarentzako lekua dago. Hala, 10 euro ordaindu beharko dute irrintzi-ikastaroetan parte hartu gura dutenek; saioak Kurtzio kultur etxean egingo dituzte, 18:30etik 20:30era. Iaz ere irrintzi-ikastaroa antolatu zuten; aurten jarraipena emango diote. Halaber, Uribe Kostako II. Zantzo Txapelketa egingo dute, ekainaren 29an, Sopelako San Pedro jaien barruan.

Txapelketa, iaz. © SOPELAKO PANDEROJOLEAK

izen-ematea: 635 721 155

Mihiluze lehiaketaren finala jokatuko dute eskualdeko 32 gaztek

Bariku honetan jokatuko da Uribe Kostako Mihiluze lehiaketaren finala, maiatzaren 26an; hitzordua 18:00etan ipini dute, Kurtzio kultur etxean. Hala, 16 bikotek parte hartuko dute sailkapen-errondetan, eta lau bikote lehiatuko dira final handia, Euskalzaleen Topaguneak azaldu duenez. Talde irabazleak 400 euroko bonua jasoko du; bigarrenak, 200 eurokoa, eta hirugarren zein laugarren taldeek, 100 euroko bonu bana. Era berean, parte-hartzaile guztiek sandalia-parea jasoko dute opari legez. Ikusleek ere parte hartzeko aukera edukiko dute. Eskualdeko 10 eta 14 urte bitarteko gaztetxoentzako lehiaketa da Mihiluze .

Komunikazioaz berba egiteko kanpamendua egingo dute udan

Komunikazio Alternatiboaren lehenengo Kanpamendu Internazionalista egingo dute, Sopelako Ander Deuna Ikastolan, uztailaren 2tik 12ra. Bakea eta Duintasuna elkarteak eta *Pueblos* aldizkariak antolatu dituzte jardunaldi horiek. Daborduko izena emateko aukera dago. «Kanpamenduak topaketarako gune bat izan gura du, formaziorako, gogoetarako, elkartrukerako eta errealitate zehatzen analisirako espazioak aurreikusiz, zeinetan pertsona guztien bidezko parte-hartzea bermatuko den», azaldu dutenez. Izena eman ahal izango da ekainaren 9ra arte.

izen-ematea: parte-hartu@pazcondignidad.org

Plentzia

Alternatiba, baztertuta

Isuskitza auzunera heltzeko mugikortasun-alternatibak Udalaren eta Aldundiaren artean aztertzea baztertu dute.

Isuskitzarako garraio-publikoa bere gain hartzea baztertu du Aldundiak beste behin.

Isuskitza auzuneko garraio publikoaren alternatiba bat Aldundiak aztertu behar izatea ez dute onartu Bizkaiko Batzar Nagusiek. Podemos Bizkaiak arauz besteko proposamen bat egin du, «aukerarik egingarriena eta iraunkorrena» finantzatzeko. EH Bilduk zuzenketa-eske bat aurkeztu dio testuari, aurretik azterlan tekniko eta ekonomiko bat egin dezatela; talde moreak onartu egin du zuzenketa hori. Batzarretako talde guztiek onartu dute Isuskitzan «arazo» bat dagoela, «azken 40 urtean» ez delako egon garraio publikorik. Dena dela, ez dira ados ipini, egoera hori konpontzeko ardura duen administrazioa zein den erabakitzeko orduan. EAJ eta PSE taldeen iritziz, Plentziako Udala izan da horren gastua bere gain hartu behar duena, garraioak «uri barruko» izaera duelako. Oposizioko lau taldeak ez daude ados horregaz. EH Bilduk adierazi du Plentziako Udala «prest dagoela hitzarmen bat sinatzeko», garraio-zerbitzua eskaini ahal izateko; eta ez du baztertzen Udalak berak bakarrik gastua bere gain hartzea, alternatiben azterlanak egokiena hori dala erakusten badu.

Gorliz

Martxa Nordikoaren Nazioarteko Eguna, zapatuan

Gero eta jende gehiago ikus daiteke udalerrian martxa nordikoa praktikatzen, aurrera eta atzera, gora eta behera. Kirol-mota horren zaleak areagotu egin dira azken urteotan Gorlizen; hori dela eta, horiek denak batzeko Martxa Nordikoaren Nazioarteko Eguna egingo dute zapatuan, hilaren 27an. Hala, hainbat ekimen antolatuko dituzte egun horretan. Goizeko 11:00etan prestakuntza-tailerrak egingo dituzte, hondartzako informazio-puntuaren ondoan. Ordubete beranduago, 12:00etan, martxa bat egingo dute. Ibilbidea 5 kilometrokoa izango da, eta ordubete inguru iraungo du, gutxi gorabehera. Ekimen horietakoren batean parte hartu gura duenak aldez aurretik izena eman beharko du; doakoa da. Hala ere, ikastaroan ia ez dago lekurik, horregatik, arin ibiltzeko gomendatu dute antolatzaileek; ostera, ibilaldirako, oraindino lekua egon badago.

izena emateko: turismo@gorliz.net / 946 774 348

Solairuarte berria egingo dute Arkote taldearen egoitzan

Plentziako Arkote Arraun Taldearen lokaletan solairuarte berria egingo dute. 2017ko udal-aurrekontuen barruan, udalerriko kirol-egoitzetan egingo diren inbertsio garrantzitsuena izango da hori, 18.000 eurokoa, hain zuzen ere. Arkote Arraun Taldea sortu zenetik asko handitu da; azkenengo 20 urteotan, arraunlari- eta txalupa-kopurua bikoiztu egin da klubean, eta gero eta leku gehiago behar dute taldearen funtzionamendua egokia izan dadin, udal-arduradunek azaldu dutenez. Horri aurre egiteko, proposatzen duten solairuarte berria eginez, erabilgarria izango den azalera handitu egingo dute; batez ere txalupa-biltegirako, eta antolamendu-lanetarako.

Sei urtean itxita egon ostean, ateak ireki ditu berriro ere Plentziako Kasino zaharrak; orain, Hotel Boutique Bahía de Plentzia da. Joan den eguenean egin zuten inaugurazio-ekitaldia, hilaren 18an; eta ehunka lagun bertaratu ziren horretara.

Lemoiz

Etzandarrikoak Lekanda mendira joango dira domekan

Lemoizko Etzandarri euskal mendi-taldeak 2017ko hurrengo irteera hilaren 7an egitea aurreikusi bazuen ere, txangoa atzeratzea erabaki zuen, Gure Esku Dagoren herri-galdeketa zela eta. Hala, domeka honetan joango dira Gorbeiako mendilerroan dagoen Lekanda mendira (1.302 metro), hilaren 28an. Ohi den legez, txangoa Armintzako autobus-geltokitik irtengo da, goizeko 09:30ean; eta 17:00etan bueltatuko dira. Interesdunek telefonoz dei dezakete txangoan izena emateko. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, eguraldi txarra eginez gero, irteera bertan behera gelditukо da. Txangoa doakoa da, baina beharrezko kontuak ondo antolatzeko, umeek eta nagusiek aldez aurretik izena eman beharko dute. Gainera, Etzandarrikoek akordura ekarri dutenez, umeen artean euskararen erabilera bultzatzeko dira irteerak, beraz, horietan parte hartzeko euskaraz ondo jakitea beharrezkoa da. Modu berean, gogoratu dute nork bere janaria eroan behar duela, eta mendira joateko arropa «egokia» janztea beharrezkoa dela, berbarako mendiko botak, polar bat eta anorak edo txamarra bat.

izena emateko: 688 602 121 (Marian)

Euskara-teknikariak aurrez aurreko zerbitzua emango du

Daborduko Lemoizko herritarrek udalerriko euskara-teknikariagaz berba egin ahal izango dute, aurrez aurre. Hala jakinarazi zuen hilabetearen hasieran Unai Andraka Casimiro Lemoizko alkateak. Azaldu zuenez, hilaren 22tik aurrera, euskara-teknikariak aurrez aurreko arreta eskainiko die lemoiztarrei. Zerbitzua astelehenetan eskainiko duela iragarri dute udal-arduradunek, bi astean behin; hala, lehenengo saioa hilaren 22an izan zenez, hurrengoak ekainaren 5ean eta 19an izango dira. Arreta-zerbitzu hori Urizar auzoan kokatuta dagoen udaletxean izango da (Urizar auzoa, 56). Ordutegiari dagokionez, berriz, goizeko 08:00etatik 15:00etara egongo da teknikaria bertan, udalerriko herritar denen zalantza eta galdera guztiei euskaraz erantzuteko helburuagaz.

info+: www.lemoiz.eu

Barrika

Barrika Barriko nagusiek 1.000 euro eman dizkiote EITB Maratoi solidarioari

Barrika Barri eta Kirikiño (Bilbo) egoitzako nagusiek 1.373,27 euro eman dizkiote 2017ko EITB Maratoiari, gaixotasun neurodegeneratiboen aurkako ikerketetan laguntzeko. Diru hori dena nagusiek beraiek lortu dute, 2016an zehar hainbat ekimen egin ostean, berbarako azoka solidarioak, kolektak, antzerkiak eta askotariko jarduerak. Dohaintza «Barrika Barri y Kirikiño en Comunidad» jardunaldiaren baitan egin zuten, eta erabiltzaileek eurek eman zioten dirua Maje Sáez EITBko instituzio-harremanen arduradunari. Jardunaldia Barrika Barri egoitzan egin zuten. 300 lagunek baino gehiagok parte hartu zuten ekimenean, eta ezintasuna duten gizon-emakume nagusien balioa azaleratu zuten, besteak beste. Horretarako, askotariko ekintzak garatu zituzten, esaterako irakurketa erraza, dantzak eta jolasak.

Urduliz

Andra Mari jaietarako lehiaketa bi, martxan

Udako festak iragartzeko kartela eta kontzertuak hautatzeko deialdi bi egin dituzte egunotan.

Batetik, Andra Mari jaiak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du Urdulizko Kultur Etxeak. Lanak postaz bidali zein lekuan bertan aurkez daitezke Urdulizko kultur etxean (Aita Gotzon, 16 - 48610 Urduliz), ekainaren 15eko 13:30era arte. Irabazleak 400 euro jasoko ditu. Horrez gainera, ekainaren 17tik 24ra bitartean, kultur etxean egingo den erakusketan herritarrek aukeratzen duten lanaren egileak 100 euroko saria lortuko du. Eta beste saririk jaso ez duen urduliztar baten obrarik onenaren egileak, beste horrenbeste. Gura duten guztiek parte hartu ahal izango dute lehiaketan, eta gura beste lan aurkez daitezke; kartelaren gaia eta erabili ahal diren teknika eta koloreei dagokienez ez dago baldintzarik. Ostera, agertu beharreko testua hauxe da: «Urdulizko Jaiak - Andra Mari 2017».

Jaietan jotzeko taldeen deialdia

Bestetik, udalerriko musika-taldeei eta bakarlariei andramarietan jotzeko aukera eskaini die Urdulizko Jai Batzordeak. Gura dutenek ekainaren 10era arte izena eman dezakete. Aurreko urtean jo ez dutenek lehentasuna izango dute, eta udalerrian erroldatuta dagoen partaide bakoitzeko puntu bana jasoko du taldeak. Erabakia uztailaren lehenengo astean argitaratuko dute.

info+: www.urduliz.eus
izena emateko: urdulizkojb@gmail.com

Ospitalera joateko Olabide errepidea amaitzeko datarik ez dago oraindino

Urdulizko ospitaleko sarbideetako bat izan beharko lukeen Olabideko errepidea amaitzeko datarik ez dute zehaztu. Urdulizko Udalak proposatu zuen aukera hori, baina Sopelako Udalari dagokion tartea egiteko dago oraindino. Inguruko hainbat auzokidek «atzerapen larria» dela salatu dute. Horren harira, Sopelako Udala inkesta bat egiten dabil hainbat gairen inguruko herritarren iritzia jasotzeko, tartean, Olabide errepidearena. Gontzal Hermosilla Sopelako alkateak azkenengo udalbatzan azaldu zuen errepide hori Osteiko industrialdera joateko bidearen parte dela, eta badaudela inguru horretan kokatzeko interesa duten hainbat enpresa. Hori dela eta, «ez dugu galdu nahi leku horietarako sarbidea izan daitekeena eraikitzeko aukera», esan du. Hala ere, ez du zehaztu noiz amaituko duten proiektu hori.

Uribe Kosta

Kudeaketa aurreratu baterako osagaiak ikasteko mintegiak

Ikastaroak Behargintza Erandion, Getxolanen eta Leioako Enpresa Mintegian egingo dira.

Erandio, Getxo eta Leioako udalek Directiv@ 21 prestakuntza programa antolatu dute, SPRIgaz elkarlanean. Industria-enpresei eta horiei lotutako zerbitzuei zuzendutako programa horrek 7 saio ditu, goiz osoan egitekoak, eta desberdinak, independenteak eta doakoak dira. Horiek denak hiru udalerrietan garatuko dira. Parte-hartzaileek enpresa baten kudeaketa aurreratuaren gakoak zeintzuk diren eta horiek zelan erabili ikasi ahal izango dute, besteak beste.

Antolatzaileek azaldu dutenez, programa horrek arrakasta handia eta eskaera asko izan ditu; izan ere, 2016. urtean 600 pertsonak baino gehiagok parte hartu zuten. Parte-hartzea doakoa bada ere, aldez aurretik lekua gordetzea beharrezkoa da, leku-kopurua mugatua delako. Prestakuntza osorik egitea aukeratzen duten enpresek egoeraren diagnostiko zehaztua eta doakoa izango dute, aholkularitza tekniko baten bidez egingo dute hori.

Moduluak 5 ordukoak izango dira eta goizeko 09:30ean hasiko dira; horien arabera, ikastaroa leku batean ala bestean izango da: Behargintza Erandion, Getxolanen edo Leioako Enpresa Mintegian. Lehenengo saioa hilaren 25ean izango da, Getxolanen.

Erabakitzeko «prest» daudela irudikatuko dute Algortako Portu Zaharrean, zapatuan

Eskualdeko sei herritan erabakitzeko eskubidearen aldeko galdeketa egin ostean, Uribe Kostako udalerri denak batu egingo dira eta mosaiko erraldoia egingo dute zapatuan, hilaren 27an, Algortako Portu Zaharrean; eskualdeko Gure Esku Dagoren talde denek bat egingo dute mobilizazio horretan. Jakinarazi dutenez, mosaikoan galdera-ikur bat irudikatuko dute. Hitzordua 12:00etan ipini dute, Portu Zaharreko beheko zelaigunean, eta horretan parte hartzera dei egin dute. Izan ere, ekimen horregaz batera, ekainaren 10ean Bilbon egingo den aldarrikapen-egunera joateko deialdia egin gura dute.

Bigarren eskukoen azoka egingo dute ekainaren 10ean Sopelako Jauregizarren

Ekainaren 10ean, zapatuan, bigarren esku gauzen azoka egingo dute Sopelako Jauregizar plazan. Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatearen Ekogunek antolatutako Aukera On izeneko merkatu hori goizeko 11:00etatik arrastiko 03:00etara arte egongo da zabalik, bigarren eskuko edozer gauza erosteko edo trukea egiteko. Bertan postutxo bat izan gura duenak ekainaren 2a baino lehen izena eman beharko du. Merkatuaren helburuak hauek dira: batetik, berrerabilpena sustatzea; bestetik, zaramara ez botatzea beste batzuek erabiltzen jarrai ditzaketen produktuak.

info+: ekogune@uribekosta.org / 946 762 872

Gurasolagun egitasmoan izena eman daiteke daborduko

Guraso euskaldunak edo euskaraz ikasten dabiltzanak egoera berean dauden beste guraso batzuekaz harremanetan ipintzeko egitasmoa martxan jarriko dute laster. Horretarako, Gurasolagun mintza-taldeak sortuko dituzte, astean behin norberari ondoen datorkion egunean elkar daitezen. Gainera, tailer txikiak, irteerak edo txangoak egingo dituzte hilean behin, gurasoakaz eta umeakaz. Egitasmoan parte hartzeko nahikoa da gutxieneko elkarrizketa-maila izatea. Horrenbestez, horretan gura duenak izena eman dezake daborduko.

info+: uribekostagurasolagun@gmail.com

Albuma

Felicia, la mujer sin cabeza, Miguelillo.

Silencis, Claire Ducreux.

Topa, Kukai Dantza & Brodas Bros

Femmes, Hortzmuga teatroa.

El fin de las cosas, Eva Guerrero.

De la jungla al asfalto, Bloc Quilombo.

Little boy, the king of harmonica, La Malette.


6º below nothing, Karla Kracht & Andrés Beladiez.

Jendez bete-beteta egon ziren Leioako kaleak eta plazak, aste-akabuan; 37.000 lagun baino gehiago erakarri zituen aurtengo Umore Azokak. Ertza taldearen *Meeting Point* lanak irabazi du Euskadiko Kale Ikuskizunik Onenaren Saria; Valentziako Maduixa konpainiak, Kale Ikuskizunik Onenarena, *Mulïer* obragaz; eta Suitzako Ici'Bas-ek, Artista/ikuskizun berri Onenarena. Antzerkiz, dantzaz, zirku-ikuskizunez eta umorez leporainoko eskaintzak, ostera, euskarazko nahikorik ez duela izan ere entzun da.

ARGAZKIAK: **HODEI TORRES**

Kalea, antzerkiz blai

Libèlul.la, Toti Toronell.

Piknik kalian, Pinosolo parkean. © KALIAN

Meeting Point, Ertza.

Wet floor, Cristina Solé konpainia.

Uribe Kostako astekaria

hirukagenda

2017ko **maiatzaren 25**etik **maiatzaren 31**ra arte

hiruka.eus

Txupinari su eman eta gutxira agertuko dira Mari, Aker, Inguma eta beste hainbat pertsonaia mitologiko, Lamiakon.

LEIOA

Maskaradagaz hasiko dira Lamiakoko sanmaximoak

Bariku honetan hasiko dira San Maximo jaiak, Lamiakon, maiatzaren 26an; domekara arte hamaika ekitaldiz gozatzeko aukera egongo da Leioako auzo horretan. Lehenengo egunean, besteak beste, kalerik kale ibiliko dira Mari, Aker, Inguma eta beste hainbat pertsonaia mitologiko; izan ere, 1978tik orain arte, Euskal Herriko mitologiaren antzezpena egiten dute urtero Lamiako Maskarada kultur elkarteko kideek. Hala, 17:30ean, Gaztelubide kalean dagoen Putzegilearen errotondatik Lamiakoko metro geltokiraino, kalejiran abiatuko dira Maskaradako partaideak: Maiatzak, erraldoiek, fanfarreak eta herriko dantzariek maskaradaren etorrera iragarriko dute. 18:00etan, berriz, Mari eta bere bikote Sugaar agertuko dira Lamiaren eskulturaren ondoan. Besteak beste, joan-etorria egingo dute Txopoetako garbitegiraino, bidean pertsonaia mitologikoakaz dantzatuz eta gaueko akelarrera gonbidatuz. Hain zuzen ere, 22:30etik aurrera, suaren inguruan dantzan egingo dute batutako pertsonaiek, Lamiakoko eliza ondoan. Jende asko batu ohi da gaueko antzezkizuna ikusteko. ◂

ANTZERKIA

MAIATZAK 26, BARIKUA

Poesia-errezitaldia

18:00 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio

Trapagako Olerki Maitea elkarteagaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

El caso de la mujer asesinadita

19:00 | Berango Antzokia | Berango

Antzerki Amateurraren VI. Jaialdia. Berangoko Txirlora antzerki taldeagaz. Helduentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 3 euro.

MAIATZAK 28, DOMEKA

Eskola Antzerki Jardunaldiak

11:30 | Areetako musika-eskola | Getxo

Getxoko Ume Antzerkia Bultzatzeko Elkarteak (GUABE) antolatuta. Ikasturte osoan landutako antzezlanak taularatuko dituzte ikastetxeetako umeek. Arrastian ere egongo dira emanaldiak, 17:00etan. Sarrera, doan.

Siempre Gila

19:00 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio

Besarkada federazioa osatzen duten bost antzerki-taldegaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

BERBALDIAK

MAIATZAK 26, BARIKUA

Jornadas solidarias con lxs presxs politicxs colombianxs

19:30 | Plaza Beltza kultur gunea | Sopela

Miguel Ángel Beltrán irakasleagaz. Doan.

MAIATZAK 31, EGUAZTENA

Plantas de suelos salinos de nuestro entorno

19:30 | Algortako kultur etxea | Getxo

Basozaleak elkarteak antolatutako jardunaldi botanikoak. Enrique Elexpurugaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

DEIALDIAK

MAIATZAK 27, ZAPATUA

Erabakitzeko eskubidearen aldeko mosaikoa

12:00 | Algortako Portu Zaharra | Getxo

Gure Esku Dagok antolatuta. Parte-hartzea libre.

ERAKUSKETAK

MAIATZAREN 28RA ARTE

Pablo Astrainen pinturak

Torrene Aretoa (Algorta) | Getxo

Astelehenetik domekara. Sarrera, doan.

MAIATZAK 27, ZAPATUA

Martxa nordikoaren eguna

11:00 | Kostaldea | Gorliz

Tailerra eta ibilaldia egongo dira. Informazio gehiago: turismo@gorliz.net

MAIATZAK 28, DOMEKA

Gorlizko Badia XI. Triatloia

10:00 | Hondartza | Gorliz

Informazio gehiago: iasportevent@gmail.com

LEHIAKETAK

MAIATZAK 26, BARIKUA

Mihiluze lehiaketaren finala

18:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela

Uribe Kosta eskualdeko 10 eta 14 urte arteko gaztetxoek parte hartu dute lehiaketan. Doan.

MUSIKA

MAIATZAK 25, EGUENA

Daniel Merino (pop-rock)

20:00 | Aitite taberna (Areeta) | Getxo

Getxon Zuzenean kontzertu-zirkuitua. Doan.

MAIATZAK 27, ZAPATUA

Garden ikuskizuna

20:00 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio

Alos Quartet musika-taldeagaz. Aukeran Dantza Konpainiako kideek dantzatuko dute. Gaztelaniaz. Sarrera: 4 euro.

Erasoka, Kupoavetechen eta Rotten XIII

20:00 | Txorimalo gaztetxea | Getxo

Ernaik antolatuta. Jolasak (18:00) eta ekitaldia (21:00) ere egongo dira. Sarrera: 4 euro.

Zazkel eta Gorpuzkingz

21:00 | Plaza Beltza kultur gunea | Sopela

Sarrera, doan.

Piztiak

21:00 | Azebarri kultur gunea | Getxo

Sarrera, doan.

MAIATZAK 28, DOMEKA

Euskal Herrian Kantuz

09:30 | Ontziola plaza | Plentzia

Plentziako Kantagunek antolatuta. Gasteizera joango dira; bertan abestuko dute. Informazio gehiago: pk@plentziakantagune.eus

Erandioko Musika Banda

12:30 | Gaztela eta Leongo Etxea | Erandio

Sarrera, doan.

GETXO

Jasone Osoro idazlea, irakurzaleen txokoan

12etan bermuta liburuaz berba egingo du Jasone Osoro idazleak, Algortako kultur etxean, gaur, maiatzaren 25a. Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoak 19:30ean ipini du hitzordua; sarrera, doan. Saioa euskaraz izango da. ◂

ERANDIO

Munduagaz jolasean, Erandiogoikoan

Eneko Etxebarrieta ipuin-kontalariak Munduarekin Jolasean ikuskizuna eskainiko du, Erandiogoikoko gizarte-etxean, bariku honetan, maiatzaren 26an. Emanaldia 1 eta 3 urte arteko umeentzat da; 19:00etan hasiko da. ◂

BERANGO

Berango Kantariren kantu-jira, barikuan

Hilabete bakoitzeko azken barikuan egin ohi dute kantu-jira Berango Kantari ekimeneko lagunek. Hala, Lantzartetik abiatuko dira, 20:30ean, bariku honetan, maiatzaren 26an. Armuru eta Axgane auzoak ere alaituko dituzte. ◂

Hamaika sari banatuko dituzte ibilgailu klasikoen ugazaben artean, 14:30ean; horren ostean, luncha egongo da. © PLENTZIACLASSIC

Garai bateko ibilgailuak, Plentzian

Goizeko 09:30ean harrera egingo diete ibilgailu klasikoen topaketan parte hartuko duten denei, Ontziola plazan. Ordutik aurrera, ibilgailuak ikusi ahal izango dira bertan, eguerdira arte. Gero, ibilaldia egingo dute autoek eta motorrek, 12:00etatik 13:00etara, inguruko herrietatik. ◂

Noiz: Maiatzak 28, domeka.
Ordua: 09:30
Non: Ontziola plaza.
Antolatzailea: Plentziaclassic elkartea.

MAIATZAREN 31RA ARTE

Arteskolako ikasleak

Algortako kultur etxea | Getxo
Astelehenetik barikura. Sarrera, doan.

Araldi emakumeen elkarteko margo-tailerra

Goñi Portal kultur etxea | Plentzia
Astelehenetik domekara. Sarrera, doan.

MAIATZAREN 31TIK EKAINAREN 2RA

Olio-pinturak eta eskulanak

Bekoa ikastetxea (Altzaga) | Erandio
Erandioztarrok helduen hezkuntza elkarteagaz. Ordutegia: 11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 19:30era. Sarrera, doan.

IKASTAROAK

MAIATZAK 26, BARIKUA

Esperimentu-tailerra

16:30 | Antón Fernández, 3 | Erandio
Ausartzen elkarteagaz. Gaztelaniaz. Doan. Informazio gehiago: 646 269 156

MAIATZAK 30, MARTITZENA

Argazki-edizioa

19:30 | Atxutegi, 15 (Astrabudua) | Erandio
Astrabuduko Fotoclub elkarteagaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

JAIAK

MAIATZAK 28, DOMEKA

JolasGUNE 2017

11:00-19:00 | Artatza parkea | Leioa
Haziz Hazi hezkuntza sareak antolatuta. Jolasen Nazioarteko Eguna ospatuko dute. Informazio gehiago: www.hazizhazi.org

JOLASAK

MAIATZAK 26, BARIKUA

Parkean Olgetan

17:30 | San Nikolas plaza (Algorta) | Getxo
Egizu euskara elkarteko Sendi proiektuak antolatuta. 3 urtetik gorako umeentzako eta euren gurasoentzako jolasak prestatuko dituzte. Euskaraz. Doan.

KIROLAK

MAIATZAK 26, BARIKUA

Futbol-txapelketa

16:30 | Antón Fernández, 3 | Erandio
Ausartzen elkarteagaz. Gaztelaniaz. Doan. Informazio gehiago: 646 269 156

MAIATZAK 30, MARTITZENA

Flauta-entzunaldia

18:00 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Erandioko Musika Eskolaren ikasleakaz. Doan.

TXANGOAK

MAIATZAK 27, BARIKUA

Getxo barria ibilbide toponimikoa

09:30 | Karmengo eliza (Neguri) | Getxo
Bizarra Lepoan euskara elkarteak antolatuta. Euskaraz. Doan. Izen-ematea: 688 635 350

MAIATZAK 28, DOMEKA

Jatara mendi-irteera

09:00 | Fadurako parkinga (Algorta) | Getxo
Ungari mendi-taldeak eta Egizuk antolatuta. Izen-ematea: egizugetxo@gmail.com

Lekandara mendi-irteera

09:30 | Armintzako bus-geltokia | Lemoiz
Etzandarri mendi-taldeak antolatuta. Izen-ematea: 688 602 121

MAIATZAK 31, EGUAZTENA

Kostaldeko Getxo ibilbide toponimikoa

09:30 | Portu Zaharreko Etxetxu | Getxo
Bizarra Lepoan euskara elkarteak antolatuta. Euskaraz. Doan. Izen-ematea: 688 635 350

ZINEMA

MAIATZAK 25, EGUENA

Nómadas en la arena

19:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela
Panda Raid Bizkaia taldeak Marokoko basamortuan bizitako hamar eguneko abentura eta 5.000 kilometroko ibilbidea jasotzen du dokumentalak. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

MAIATZAK 26, BARIKUA

Eisenstein en Guanajuato

21:00 | Areetako musika-eskola | Getxo
Proiekzioa eta foruma. 16 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,90 euro.

MAIATZAK 27, ZAPATUA

Dos colegas al rescate

18:00 | Kultur etxea | Urduliz
Gaztelaniaz. Sarrera: 3,50 euro.

MAIATZAK 30, MARTITZENA

Doña Clara

20:00 | Kultur Leioako entzungela | Leioa
Perseo zineforuma. 16 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,50 euro.

Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

1. Bidali informazioa helbide elektroniko honetara: hiruka@hiruka.eus

2. www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.

Zapatuko emanaldiko sarrerak 4 euroan daude salmentan. © ALOS QUARTET

Musika eta dantza

Alos Quartet taldeak eta Aukeran konpainiak *Garden* ikuskizuna eskainiko dute, Josu Murueta kultur etxean.

Alos Quartet taldeak bere azken lana aurkeztuko du, Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean, zapatu honetan, maiatzaren 27an. Gainera, *Garden* diskoaren zuzeneko emanaldi horretan Aukera Dantza Konpainiaren dantzariakaz agertuko dira musikariak; horiek koreografiarik garaikideenak erakutsiko dizkiote publikoari. Hitzordua 20:00etan ipini dute; sarrerak 4 euroan salgai daude. *Garden* lanean, Alos Quartet laukoteak oso modu berezian garatzen ditu bere ibilbidean propio izan dituen soinu dotorea, intimitatea eta estilo berezi zein eklektikoa. Gozotasunez proposatutako dantza ezberdinen giro eta erritmoen (arin arinetik tangora, edo fandangotik bals gozoetara) eta soinu iradokitzaileen bidez (ohikoak ez diren tresnei esker lortutakoak), mundu magikoetan nabigatzeko aukera eskaintzen dute; hala diote, behintzat, taldeko kideek. Diskoa osatzen duten 13 abestien grabaketan, azken urteetan bidelagun izan dituen hainbat artista eta lagunen laguntza izan du taldeak; berbarako Eñaut Elorrieta eta Silvia Iriondo ahotsetan, Oreka TXen txalaparta, Harkaitz Cano idazlea eta poeta, eta Bill Cooleyen salterioa. Horiek denek eman diote beraien kolore eta ukitu berezia lan berriari.

Klasikoa eta modernoa

Alos Quartetek 1999an eman zituen lehen pausoak. Musika klasiko zein modernoan esperientzia zabaleko musikariek osatzen dute taldea. Hainbat orkestragaz lan egiteaz gainera, taldekideak folk-banda ezberdinetako partaideak ere izan dira; berbarako, Oskorrikoak; hainbat musika-proiektutako ohiko kolaboratzaileak ere bai.

Harizko laukoteko formatutik abiatuta, gaur egungo musikaren askotariko esparruak arakatzen ditu taldearen errepertorio zabalak. Ikuspuntu berri bat eskaini gura dute, estilo ezberdinen uretan aurreiritzi barik eta naturaltasunez murgilduz. Sorreratik hona, grabaketa- eta kontzertu-zerrenda luzea osatu du taldeak. Kolaborazio estuenetariko bat Dulce Pontes abeslari portugaldarragaz egindakoa izan zen; Espainiako nahiz Portugalgo antzoki garrantzitsuenetan hainbat bira egin dituzte elkarregaz.

Hitza emanda

Kukua

Udaberria denez
gure sorlekuan,
belarria daukagu
kukuen kantuan.
Batzuek eredua
daukate kukuan,
jarduten direlako
kuku hor, kuku han!

IÑIGO KORTAZAR ELIAS
Bertsolari algortarra

HIRUKAk proposatutako hitz baten harira, ALBEko kideek bertso bat jarriko digute atal honetan, astero-astero.

Algortako Bertsolari Eskola

Getxoko eskola-umeek ikastetxean landutako antzezlanak erakutsiko dituzte, beste urte batez

Urtero legez, antzerki-tailerretan egindako lana jendaurrean erakutsiko dute Getxoko hainbat ikastetxetako eskola-umeek, domeka honetan, maiatzaren 28an; sarrera, doan. Areetako Andrés Isasi musika-eskolan saio bi egingo dituzte: bata, 11:30etik 14:00etara; bestea, 17:00etatik 20:30era. Getxoko Ume Antzerkia Bultzatzeko Elkarteak (GUABE) ematen ditu ikastaro horiek, udalerriko ikastetxe publikoetan eta pribatuetan, eurek eskatuz gero; «jarduera borondatez eskatzen duten ikasleentzat da», udal-iturriek azpimarratu dutenez. Lehen Hezkuntzako 3, 4, 5. edo 6. mailan egon behar dute eskola-umeek jardueran parte hartu ahal izateko. Hala, 2016-2017 ikasturtean, 27 ikastaro eman dituzte; iazko urriaren lehen astean hasi ziren. Ikastaroak euskaraz eta gaztelaniaz ematen dira eta, oro har, eskolaz kanpoko orduetan eta eskola-egunetan gauzatzen dira.

Mobydick-ek ere joko du Getxo Sound-a gogoan

Getxo udalerrian 8oko hamarkadan sortutako taldeei gorazarre egin gura diete. © THINK CHIC

Besteak beste, Mobydick ezizenagaz ezaguna den Eneko Burzako bakarlari algortarrak kontzertua emango du aurtengo San Miguel Getxo Music & Food jaialdian. Festibala aste-akabu honetan egingo dute, Algortako Portu Zaharrean, maiatzaren 27an eta 28an. Mobydick-en musika-emanaldiaz (domekan, 14:00etan) gainera, Doctor Flashback, Still River, I.S. Martin, Venice, Gringo, Trampas, La Cosa Oeste, Cicuta Love, The Beatpunkers eta Berta Bittersweet & Zkinni taldeek joko dute. Aurtengo berrikuntza nagusia jam-sesioak izango dira.

info+: tinyurl.com/loj9xg6

Txiri-txiri

UXUNE IRIONDO URBISTAZU
Bilgune Feministako kidea

Inor ez da arrotz Getxon, Munduko Arrozetan...

bilbide feminista eta euskaltzaleak azken hilabetean espazio publikoaren okupazioa hizkuntza eta genero ikuspegitik begiratzen saiatzera eroan nau. Lehen mailako pribilegiodun egiten nauten ezaugarriak baditudan arren, euskaldun eta, gainera, emakume izanik, badakit botere-harremanetan bigarren mailan egotea ere zer den. Hartara, kale-jardunean errazago konektatu dut Mujeres con Voz elkartekoekin bertoko beste feministaerdaldun batzuekin baino. Abegitsuagoak dira euskararekin. Feminista euskaldunok badakigu zer den, hizkuntza tarteko, espazio batzuetan deseroso sentitzea. Saiatzen gara euskararen «arnasguneak» sortzen. Mujeres con Vozen, kanpotik etorritako emakume gisa, ahalegin handia egiten dute, feminismotik beti, beste hizkuntza, kultura, ohitura eta egoteko modu batzuen artean eroso sentitzeko guneak sortu eta aurkitzeko. Abiapuntu ezberdinetatik, funtsezko gaietan antzeko gogoeta eta ondorioetara heltzen gara. Espazio pribatuetan ordu asko elkarrekin eman ondoren, eta konfiantza eta konfidentzia giroetan partekatutakoetatik, «konplize» bihurtu gara modu naturalean. Gero eta sarriago ikusiko gaituzue aurrerantzean kalean elkarrekin, lagunarte zein jai giroan, baita gogoeta eta borroka guneetan ere, herrigintza ere beraiekin ulertzen baitugu. Andra Mariko horma-irudia, Portu Zaharreko txosna, Munduko Arrozak. Euskarara ere ekarri nahi ditugu, beraien hizkuntza eta kulturak ere ezagutu nahi ditugun bezala. Horregatik, udan zehar Getxon dauden hizkuntza guztiak bistaratzeko jarduera landuko dugu. Izan gaitezke feminista euskaltzale izan gabe? Izan gaitezke euskaltzale eta arrazista? Izan gaitezke feminista eta arrazista?

Plaza Beltzaren lokala erabili gura duenak plazabeltza@gmail.com helbide elektronikora mezu bat bidaltzea nahikoa du.

«Kultur adierazpen berriei aukera eman gura diegu»

Plaza Beltza kultur elkarteak apirilaren 31n zabaldu zuen egoitza berria, Larrabasterrako Loiola Ander Deuna kalean. Daborduko, hainbat ekitaldi egin dituzte bertan.

TESTUA: **KEPA UGARTE MARTIARENA**
ARGAZKIA: **HODEI TORRES**

Apirilaren 31n zabaldu zuen egoitza berria Plaza Beltzak, Larrabasterrako Loiola Ander Deuna kaleko 40. zenbakian. Kultur elkarteak bere lokal hori erabiltzera gonbidatu ditu eragileak eta norbanakoak, euren ekintzak berton egiteko.

Zein da Plaza Beltza kultur elkartearen abiapuntua?
Sopelan, Ganebarri gaztetxea hutsarazi zuen poliziak, 2006an; hori inflexiopuntu bat izan zen bertan zebilen jendearentzat. Gazte-asanblada, gaztetxe eta okupazio-mugimenduaren balioa eta zilegitasuna zalantzan ipini barik, lokala alokatzea erabaki genuen batzuok. Gune iraunkor bat behar genuen. Hala, liburutegi politiko eta soziala zabaldu genuen, 2009an; bertan, berbaldiak, liburuen aurkezpenak eta bestelakoak egin genituen, 2013ra arte.

Zeintzuk dira elkartearen helburuak?
Elkartea sortu genuenean, apurtxo bat despolitizatuta nabaritzen genuen jendea; hori dela eta, formakuntza-gunea sortu gura genuen.

Proiektu berri bati bultzada eman gura diozuela aipatu duzue. Zelan?
Aurreko lokala liburutegi soila baino ez zen. Plaza Beltzak beti uste izan du bere egoitzak kolektibo eta lagun ezberdinek erabiltzeko gunea izan behar duela; liburutegiak ez zuen horretarako aukerarik ematen. Aurreko egoitza itxi genuenean egindako irakurketatik ondorioztatu zen bestelako lokal bat behar genuela. Kulturaren esparru berrietara heltzeko aukera ematen digu egoitza berriak. Berbarako, gurean jo gura duten musika-taldeek gure helbide elektronikora idaztea edo kulturgunera etortzea baino ez daukate.

> *“Tabernako asteburuko txandak egiten laguntzea da gehien eskertzen duguna”*

Zein da zuen ordutegia?
Eguaztenetan eta eguenetan, 15:00etatik 22:00etara zabaltzen dugu; barikuetan, ostera, goizaldeko 03:00ak arte egoten gara; zapatuetan ere ordu horretan ixten dugu, baina 18:00etan zabaltzen dugu; azkenik, domeketan, 18:00etatik 22:00etara aurkituko gaituzue lokalean.

Zelako harrera eduki dute orain arte antolatutako ekitaldiek?
Jende asko hurbildu zen apirilaren 31ko inaugurazio-ekitaldira. Egindako berbaldietan eta kontzertuetan ere lagun asko egon dira.

Ekainera begira, zer daukazue esku artean? Zer antolatuko duzue?
Besteak beste, hiru berbaldi egongo dira: bata, Kurdistani buruzkoa; beste batean, euskararen irakaskuntzan ematen den politizazioa jorratuko dugu; azkenengoan, etxeko andreei buruz berba egingo dugu. Hainbat kontzertu ere prest dauzkagu.

Zelan lagun daiteke Plaza Beltzan?
Pertsona guztiei zabalik dagoen talde eragilea daukagu; astelehenero batzen gara, 16:30ean. Hala ere, lan hori beregain hartu ezin duenak beste egiteko batzuk aukeran dauzka: berbaldiak eta kontzertuak lotzea, bultzada ekonomikoa ematea bazkidetza eginez... Baina, gehien eskertzen duguna tabernako asteburuko txandak egitea da. Izan ere, astean zehar ez dago arazorik; taberna kudeatzeko, lanegunetan liberatu bat hartzea erabaki genuelako.

«Garrantzitsuena da beti bihotzez jokatzea»

Gorka Iraizoz Moreno Athleticeko atezainak klub zuri-gorriari agur esan dio, hamar urtean horren koloreak eta atea defendatzen jardun ostean. Hala jakinarazi zuen Lezaman emandako prentsaurrekoan, lankideez, sendiaz eta lagunez inguratuta. Iraizozek bere etorkizunaren eta iraganen gainean berba egin du, bere adopzio-herrian, Berangon; Espanyolen kokatzen duten zurrumurruak zabaldu aurretik.

TESTUA: **IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA** / ARGAZKIA: **HODEI TORRES**

Klubak ez dizu kontratua berritu. Zelan hartu duzu?
Ondo. Denbora asko egon naiz, eta nago, Athleticen. Niretzat pribilegio oso handia eta berezia izan da hori. Aukera izan dut daukadan dena emateko maite dudan klubari, eta ikusita kontuak zelan joan diren, pozik nago. Alde batetik, izan dudan aukeragatik, eta beste aldetik, jendea nitaz zelan kezkatu den ikusita... dena primeran joan da. Beraz, orain arte kristoren esperientzia izan dut. Horrela bizi izan dut.

Ahal izanez gero, gurago zenuen segitzea?
Ez da nahi izatea ala nahi ez izatea. Futbolak bere momentuak eta bere bideak ditu. Ez dut harago inoiz pentsatu. Azkenean, modu onez etortzen dena bide onez hartzeko beharra dago. Aukera berriak ematen ditu bizitzak, beste kontu batzuk egiteko ere. Dagoeneko heldua naiz eta badakit zer den futbolean egin beharrekoa; badakit zelango sasoian nagoen ere. Beraz, horrekin lasai egon naiz beti.

Zer utziko duzu atzean?
Bizitako momentu eta oroitzapen asko, pertsonalak, jendearekikoak, klubarekikoak eta futbolarekikoak ere; baina, batez ere, kideak. Azken finean, kideak dira egunerokotasunean alboan dituzunak, nire eta gure arteko momentuak elkarrekin bizitzen; beti bihotzean eramango ditut.

Zer egingo duzu aurrerantzean?
Kar, kar, kar... Orain, oporrak hartuko ditut. Hori da lehenbizikoa, lasaitasunez, erabakiak familian hartzeko. Familia osatu nuenetik kontuak beste era batera ikusten ditut: erabakiak familiarekin batera hartu behar ditut, ez da ni bakarrik nenbilenean bezala, leku batetik bestera joan nintekeela eta dena errazagoa zela. Orain, beraiekin disfrutatzeko garaia da, eta elkarrekin hartuko ditugu gerora begirako erabakiak.

> **“Eli Ibarrak, Iraia Iturregik eta Irune Muruak Ibilbide oso-oso luzea egin dute, eta bikaina izan da, gainera”**

Datorren denboraldian futbol-zelairen batean ikusten duzu zure burua?
Bai, bai, ikusten dut; horrela adierazi dut orain arte. Sasoian nagoela sentitzen dut, oraindik indarra eta, batez ere, ilusioa badauzkadalako. Azkenean, nahiz eta zaharragoa izan, indarra badaukat, prestatuta bainago lan hori egiteko. Baina, gero, ilusioa da garrantzitsuena, eta nik ilusioa daukat dakidana erakusteko eta aurrera egiteko. Bestalde, esan dudan bezala, jada ez da nik neuk bakarrik hartu beharreko erabaki bat; familian puzzle txiki bat egin beharko dugu, eta ikusiko dugu nola doan dena.

Daborduko eskaintzaren bat jaso duzu?
Ez, oraingoz lasai gaude. Orain garrantzitsuena da oporrak ondo bizitzea, lasai egotea eta hortik aurrera ikusiko dugu. Futbolak ere bere erritmoak dauzka, pauta batzuei jarraitzen die, eta kontu asko azkenengo momentuan egiten direla uste dut. Ni oso modu errazean bizi izan naiz hamar urte hauetan, pribilegio horri esker: beti leku berdinean eta lasai; beste askorekin alderatuz gero. Hori ere kristoren zortea izan da. Bada urtero lan bila ibili behar duen jendea futbolean segitzeko, eta horrek ere estres handia dakar. Nik, ostera, zortea izan dut orain arte. Eta aurrerantzean, beste kontu batzuk egiteko aukera ere badut.

Agur-ekitaldiak egin dizkizute Lezaman, San Mamesen eta Indautxun. Zelan bizi izan dituzu?
Intentsitate eta poztasun handiko momentuak izan dira. Ez ditut inoiz ahaztuko. Adibidez, esango nuke lehenbizikoan, Lezamakoan, nire agerraldian baino urduriago sentitu nintzela. Hitz egin behar nuen, egoera azaldu, jende guztia agurtu... Berez hori zaila da, eta duen karga emotiboarekin, bihotza guztioi samurtzen zaigu; pixka bat zailagoa izan zen. Ondoren, San Mamesekoa kristorena izan zen, poztasun handikoa. Nire alaba nagusiak, Martinak, biziki eta irrikaz bizi izan zuen momentu hori. Pozez dardarka zegoen! Berak ez du ahaztuko, ezta nik ere. Une oso hunkigarria izan zen, nirekin batera dena eman zuten taldekideek eta jendeak. Esan bezala, pribilegio hori izan dut, eta harro sentitzeko momentua

Hamar urte, Athleticen

Gorka Iraizoz Moreno (Iruñea, 1981) Athleticen partida gehien jokatu duen hirugarren atezaina da; hau da, Jose Anjel Iribar (614) eta Carmelo Cedrúnen (402) ostean, Iraizozek dauka markarik handiena (392). Izan ere, 2007ko abuztuaren 26an jokatu zuen lehenengoz San Mamesen, Ibaiganek Espanyoli ordaindu eta jokalari-truke bat egin ondoren. Nafarrak ez zuen hasiera erraza izan Bilbon: lesio bik erizaindegira eroan zuten denboraldi osorako.

Osatuta eta Armando Ribeiro sopeloztarrarengandik lekukoa jasota, Iraizozek eraginkortasuna eta segurtasuna ezarri zituen atean. Espainiako Ligan ez ezik, Errege Kopan, Superkopan eta Txapeldunen Ligan ere erakutsi zuen balio handikoa dena.

Atezain izanda, gol bat sartu izanaz ere harro egon daiteke Iraizoz. Malagan izan zen, La Rosaleda futbol-zelaian, 2014ko abuztuaren 23an. Athletic 1-0 galtzen zihoan 94. minutuan, eta atezainak ez zuen zalantzarik izan berak ere erasora jotzeko. Buruz sartu zuen pilota Malagaren atean; baina, epaileak jokoz kanpokotzat jo eta gola baliogabetu zuen, nahiz eta Iraizoz arauaren araberako posizioan egon.

Carlos Gurpegi erretiratu zenean, Iraizozek jaso zuen taldeko kapitaina izateko ohorea, 2016an.

izan da. Bestalde, Indautxukoa *petit comité*an izan zen, baina, aldi berean, oso berezia; Jose Angel Iribar eta Carmelo Cedrún nirekin egotea berezia da beti. Halako bi pertsona alboan izatea... eta, egia esanda, beti izan ditut, beraiekin egon naizenean nire alboan egon direlako, indarra eta aholkuak ematen. Horrek asko eta asko aberastu nau, nire bizitzan oro har. Eta azkenengo momentuan ere, une hunkigarri eta txiki-txiki horietan, haiek ere egotea merezi izan zuen.

_Txopo_k eta Cedrúnek zugaz egin duten moduan, zeuk ere Arrizabalagari aholkuren bat eman diozu?
Bestearen lekuan jartzen saiatu naiz beti; eta, nik besteengandik jaso dudan bezalaxe, gustatuko litzaidake pentsatzea neuk ere besteekin berdin jokatu dudala. Beraz, hala jokatu dudala uste dut. Armando, adibidez, edo Toni Jiménez, Espanyolen nengoenean, nirekin egon ziren, erakusten, bakoitzak bere modura eta bere izaerarekin. Nolabait haien lekukoa hartu dut... Kokospekoa egitearena ez, e! Bizitzeko uneak horrelakoak dira eta horrela doa bizitza ere. Nagusitzen zarenean kontu ezberdinak egin behar dituzu, umeekin, alabekin... Horrela hartu dut nik. Beti esan dudan bezala, Kepak eta Remirok, eta Iagok, eta guztiek oso harrera ona egin didate. Eta zaila da une horietan, norbait hurbiltzea kontuak esatera, aholkuak ematera; baina, haiek oso jarrera ona izan dute beti, ohorea izan da haiekin lan egitea. Haien indarra eman didate; beraz, uste dut behintzat saiatu naizela ondare pixka bat beraiei uzten. Espero dut hala egin izana.

Zurekin batera, Athleticetik aterako dira Ibarra, Iturregi eta Murua. Zelan ikusi duzu haien ibilbidea?
Ibilbide oso-oso luzea eta bikaina egin dute. Kontuan hartu nolakoa zen emakumeen futbola hastapenetan, beraiek hasi zirenean, eta nolakoa den orain, beraiek ere egindako lanari esker. Hori lortu dute; horretaz oso harro egon behar dute. Era berean, Athleticek beraiei ere esker ona adierazi die. Eta momentu hunkigarriak ere bizi izan dituzte, ni horien lekuko izan naiz, haien agurrean. Seguru nago ni bezala gelditu direla, alboan izan duten jende guztiarekin, taldekideekin... hori da edukiko duten altxorrik handiena.

> **“Familia osatu nuenetik kontuak beste era batera ikusten ditut: erabakiak familiarekin batera hartu behar ditut”**

Aukeratu beharko bazenu zuk egindako geldiketa garrantzitsuen arteko bat, zein hautatuko zenuke?
Bat ere ez, kar, kar, kar... Urte asko dira eta ezin dut bat-batean atzeraka egin. Geldiketa asko egin ditut, baita akatsak ere, bizitzak denetarik du. Dena batzen dut, bere osotasunean ikusita. Harro sentitzen naiz hoberena egiten saiatu naizelako, den-dena ematen, jendea laguntzen; hori da garrantzitsuena.

Txantreako klubak hezi zintuen. Txikitako garai hartako zertaz oroitzen zara?
Pozik bizi izan nituen garaiak dira, ez nuen arazoetan pentsatu beharrik; lagunekin egon... futbolean jolastu... ikasketak, pixka bat... Ez nintzen oso ikasle ona, eta etxean errietak egiten zizkidaten, guztioi bezala, txarto portatzen nintzenean ikastolan... Orain futbola modu profesionalean bizi dut; baina, garai hartan *hobby*a zen, jolasa, lagunekin denbora pasatzea.... Horiek dira bizitzako unerik onenak: gaztea nintzela, kalean nindoanean, dena berria zenean...

Zer esango zenieke neska-mutil futbolzaleei?
Goza dezatela! Nik asko gozatu dut futbolean jolasten, gaztea nintzela batez ere. Ondo pasatu dut lagunekin; futbolak eman dizkit eskarmentu handia eta bizipen asko, bizitzarako baliagarriak. Futbolak bizitzak ematen dituen kontu berak ematen ditu, baina kontzentratuta. Hamar urtean, ti-ta-ti-ta, dena dator bat-batean, eta aurrera egiteko beharra dago. Irakaspen handia izan da. Neska-mutilei esango nieke, jolasteko indarra badute, egin dezatela; une txarrak izango dituztela, baina aurrera egingo dutela, eskarmentu handiarekin. Futbola maite badute, eta jolasten gozatzen badute, berdin du zein mailatan egitea. Garrantzitsuena da norbera pozik egotea egiten duen horrekin, eta horrela jokatzea beti, bihotz-bihotzez.

Erandioko Jaialdi taldeko kide bat, goitibeheraz jaisten.

Erandion, kirol-jaia

Erandiok kirol-aste osoa antolatuko du, astelehenetik domekara, udalerriko auzo denetan. Interesdunek zenbait kirol-modalitate probatu ahal izango dituzte, doan.

Erandioko Udalak bat egin du Kirol Jaia festagaz, Bizkaiko Foru Aldundiagaz elkarlanean. Ekimenaren helburua da kirol parte-hartzailearen kontzeptua hedatzea, udalerriko biztanleen artean. Kirolaren festak jarduera fisikoa bultzatuko du Erandioko kirol-instalazioetan, plazetan, kaleetan eta udalerriko beste hainbat gunetan,. Hala, datorren astelehenetik domekara, maiatzaren 29tik ekainaren 4ra bitartean, modalitate askotako kirol-jarduerak antolatuko dituzte. Kirola osasun- eta motibazio-tresna da, integratzeko, hezteko eta parte hartzeko. Ekimen horretan, Erandiok doan zabalduko ditu kirol-instalazioak herritarrentzat, eta kaleetan proba espezifikoak prestatuko ditu. «Erandioko gizarte-, kirol- eta kultura-erakundeek dena eman dute ekimen horretan, eta euren laguntza ezinbestekoa izan da», hori abian ipintzeko, udal-iturriek adierazi dutenez. Eragile horien artean, honako hauek nabarmendu dituzte: Bizkaiko Kirol Egokituaren Federakuntza, Erandioko Atletismo Eskola, Dance GM Aretoko Dantzen Elkartea, Lutxanako Arraun Elkartea, Ortzi Taldea, Astrabuduako futbol-taldea, B.E.A., Erandiotarrak areto-futbola, S.B.T. eta Jaialdi Inertzia Kirolen Elkartea.

Jarduera batzuk

Hilaren 29tik ekainaren 2ra

Egun osoan Jardun eta fitness irekiak, Altzagako eta Astrabuduko kiroldegietan.

Maiatzak 29, astelehena

17:30 Miniatletismoa, Altzagako kiroldegian.

18:00 Arraun-hastapena, Lutxanako pabiloian.

Maiatzak 30, martitzena

18:30 Boccia denontzat, Irailak 23a plazan.

Maiatzak 31, eguaztena

18:00 Gimnastika erritmikoaren erakustaldia, Astrabuduko kiroldegian.

18:30 Aerobic txikiren erakustaldia, Altzagako kiroldegian.

Ekainak 1, eguena

18:00 Gimnastika erritmikoaren erakustaldia, Altzagako kiroldegian.

18:30 Aerobic txikiren erakustaldia, Astrabuduko kiroldegian.

Ekainak 2, barikua

17:30 Zenbait jolas, San Lorentzo futbol-zelaian.

18:30 Zer da *goalball*-a?, Astrabuduko kiroldegian.

19:00 Herri-kirolak, Erandiogoikoan.

Ekainak 3, zapatua

11:00 Saskibaloia gurpil-aulkian, Altzagako metroaren plazan.

11:30 Familia-jolasak, Irailaren 23a plazan.

11:30 Zunba-maratoia, Mendiguren plazan.

12:00 Igeriketa-erakustaldia, Altzagako kiroldegian.

13:00 Nagusien erakustaldia, Mendiguren plazan.

17:00 Ur-jolasak, Altzagako eta Astrabuduko kiroldegietan.

Ekainak 4, domeka

10:30 Bizkaiko arraun-txapelketa, Erandioko ontziralekuan.

11:00 Goitibehera-tailerra, Altzagako kiroldegian.

12:00 Saskibaloi-lehiaketa, Altzagako kiroldegian.

17:00 Goitibehera-tailerra, Bekoetxe parkean.

Goiherrik jantzi du Euskadiko txapela, 680koan

Pasa den zapatuan jokatu zen Deban Lur Gaineko Euskadiko Sokatira Txapelketaren hirugarren saioa, 680 kiloko mailan. Erandioko Goiherri kirol-klubeko gizonezkoek jantzi zuten txapela, Deban irabazi ondoren. Izan ere, Azkoitiko saioa ere irabazi zuten, eta Berriatuan berdindu egin zuten, Loiuko Gaztediren aurkako lehian. Sailkapen nagusian, bigarren postuan sailkatu da Gaztedi; hirugarrenean, Goiherriko B taldea; laugarrenean, Mutriku; eta, azken postuan lotu da Erandioko Akelarre. Ekainaren 4an hasiko da 640 kiloko dema. Bertan, Getxoko taldeak ere parte hartuko du.

Barçaren kadete-taldeak txapela lortu du Urdulizen

Urdulizko Iparralde kiroldegian jokatu zen pasa den aste-akabuan Espainiako bigarren sektorearen Kadeteen Txapelketa. Barcelonako futbol-klubaren eskubaloi-taldeak ez zuen traba handiegirik izan txapela janzteko, partida denak erraz irabazi zituen eta. Iruñeko Anaitasuna kluba txapeldunordea izan zen, *Barça*ren aurkako partida besterik ez baitzuen galdu. Urduliz Eskubaloi Taldearen kadeteak ezin izan zuen Euskadiko Txapelketako bigarren postua errepikatu, hirugarren geratu ziren, Logroñoko Calasancio taldeari irabazita. Iparralde kiroldegia bete egin zen, festa-giroan.

Getxo Rugbyko sei kide lehiatuko dira nazioartean

Getxo Rugby taldeko sei jokalari deitu dituzte Espainiako errugbi-selekzioek: hiru zazpiko modalitatean lehiatzeko, eta, beste hiru, hamabostekoan. Hala, Bàrbara Pla, Nerea Agirre eta Uribarri Barrutieta Madrilen daude, zazpiko selekzioaren kontzentrazioan. Aste-akabuan Kanadan jokatuko diren Munduko Rugby Serietarako prestatzen dabiltza. Idoia Olabarrieta, Carmen Pérez eta Saioa Jaurena 15eko errugbian entrenatzen dabiltza, Munduko Txapelketarako. Joan den zapatuan, lagunarteko partida jokatu zuten Hong Kongeko selekzioaren aurka; itzulikoa ekainaren 2an izango da.

Jolasetako hiru hockey-jokalari, Espainiagaz

Rocío Ybarra, María López de Eguílaz eta Maialen García Jolaseta taldeko hockey-jokalariak Espainiako selekzioaren topaketan daude, Madrilen datorren domekara arte. Munduko Ligaren finalerdietarako prestatzen dabiltza, Adrian Lock hautatzailearen aginduetara. Bruselan jokatuko da lehia, ekainaren 21etik uztailaren 2ra. Getxoztarrak ez dira aspertuko; izan ere, entrenamenduez gainera, lagunarteko hiru partida jokatuko dituzte, Ingalaterrako selekzioaren aurka. Lehenengoa pasa den martitzenean izan zuten; eguenean eta barikuan izango dira azken demak.

Matthews da Europako onena

Munoa Borroka Taldeko eta Riders Fight Clubeko kidea da Naiomi Matthews. © MUNOA BORROKA TALDEA

Naiomi Matthews borrokalari getxoztarrak urrezko domina irabazi du Europako Grappling-Borroka Txapelketan, grappling-gi modalitatean. Gainera, zilarrezko domina ere irabazi zuen, hori grappling borroka-moldean. Lehiaketa Serbiako Novi Sad herrian egin zen, apirilaren 30etik maiatzaren 1era bitartean, United World Wrestling (UWW) antolakundearen eta Serbiako Borroka Federazioaren gidaritzapean.

Barakaldoko Munoa Borroka Taldeko eta Getxoko Riders Fight Clubeko kidea da Matthews, eta Espainiako Federazioagaz lehiatu zen Novi Saden, 53 kiloko kategorian. «Esperientzia ahaztezina izan da hau», adierazi du Matthewsek. Horrez gainera, lortutako emaitzak egindako lan gogorraren ondorio izan direla nabarmendu du, eta beragaz batera lanean ibilitako guztiei bere esker ona adierazi die.

Lehenengo domina apirilaren 30ean lortu zuen Matthewsek, grappling modalitatean; horretan, bigarren sailkatu zen borrokalari getxoztarra. Hurrengo egunean, ordea, gi-a edo kimonoa jantzita, aurkari denen gainetik gailentzea lortu zuen grappling-gi moldean, eta urrezko domina jantzi zuten. Hala, emaitza horiek lortuta, urrian izango den Mundialean parte hartu ahal izango du Europako txapeldun getxoztarrak; Munduko lehiaketa Azerbaijanen egingo dute.

Gazte-txapela irabazi du Garcíak, zortzigarrenez

Oihane García Gaminde taekwondo-borrokalariak Euskadiko Txapelketa irabazi du, zortzigarrenez, 52 kiloz azpiko junior kategorian. 15 urteko getxoztarrak lehiaketaren finala 24-3 irabazi zuen. Finalaurrekoan, Ainhize Elorduy sopeloztarraren kontra lehiatu zen García. Borrokaldi estua izan zen bien artekoa, baina, 9-7 emaitzagaz, getxoztarra gailendu zitzaion sopeloztarrari. García Gamindek zortzi aldiz irabazi du Euskadiko Txapelketa, eta beste hainbat domina ere irabazi ditu azken urteotan.

Euskadiko txapelaz gainera, garaipen ugari lortu ditu borrokalari getxoztarrak. © RAUL GARCIA

Sakonetako gimnastak, Iberdrola Ligako garaile

Leioako Sakoneta gimnastika-taldeko neskek I. Iberdrola Ligaren lehenengo fasea irabazi dute. Maiatzaren 13an izan zen lehiaketa, Santanderreko Teka Kirol Jauregian. Sakonetako gimnastak diren Izaro Martin, Maddi Otaola eta Sol Morenok parte-hartze «ezin hobea» egin zuten. «Oso ondo prestatu gara lehia honetarako», esan du Judith Torralba entrenatzaileak, «egindako lana erakusteko irrikan». Hurrengo egunean, domekan, Gimnasia Erritmikoko Euskadiko Txapelketa jokatu zen, Sakonetan bertan. Horretan, talde leioaztarrak sei domina irabazi zituen: Saioa Agirrek eta Maddi Otaolak, urrezkoak, lehenengo kategorian; Arrate Martinezek eta Naroa Fernandezek, zilarrezkoak, senior kategorian; eta Izaro Martinek eta Eneko Lambeak, zilarrezkoa eta brontzezkoa, hurrenez hurren, haurren kategorian.

Lehenengo faseko garaile izan dira. © SAKONETA

Ibon Larrinagak Mediterraneoko titulua lortu du

Ibon Larrinaga boxeolari itzubaltzetarrak WBC Mediterraneoko gerrikoa jantzi zuen, superoilar-pisuan, joan den maiatzaren 13an. Georges Leroy frantziarraren kontra borrokatu zen, eta puntu gehiago lortu zituen Larrinagak. Borroka Frantziako La Rochelle hirian izan zen; hamar roundera. Hiru epaileek eman zioten garaipena Larrinagari, zalantza barik. Frantziarrak 11 borroka zeroatzan galdu barik. Ostera, boxeolari itzubaltzetarrak urtebete pasatxo daroa profesional-mailan, eta, orain arte, egindako zortzi borrokak irabazi ditu; azkena, Europako Mediterraneoko gerrikoa lortzeko.

Brontzea jantzi dute Santxok eta Garciak

Getxoko Aixerrota boleibol-taldeko kide Maider Santxo Soto eta Katalin Garcia Lopategi hirugarren geldi-tu dira Euskadiko 21 urtez azpiko XV. Hondartza-boleibol Txapelketan. Nerea Ruiz eta Oihane Gutierrez Sestaoko taldeko bikoteak irabazi zuen txapelketa, finalaurrekoan getxoztarrak gailendu ostean. Hala, hirugarren eta laugarren postuak banatzeko partidan Sestaoko taldeko Nerea Ugalde eta Maider Bredaren aurkako partida jokatu zuten Santxok eta Garciak. Hala, 2-0 (21-13 eta 21-9) irabazi ostean, brontzezko domina jantzi zuten Aixerrota boleibol-taldeko kideek.

Merino, bertokorik onena, Biran

Taldekideek emandako laguntza goraipatu du Merinok. © LOINTEK TEAM

Eider Merino izan zen Euskal Herriko txirrindularirik onena aurtengo Emakumeen Biran. Hala, Sopelako Lointek taldeko kide balmasedarrak probaren maillot berdea jantzi zuen joan den domekan, Emakumeen Biraren 30. edizioa amaitzean. Merinok bikain jardun zuen azkenengo etapan, Errenterian hasi eta amaitu zen lasterketan. Cervélo Bigla taldeko Ashleigh Moolman-Pasio txirrindulari hegoafrikarrak Jaizkibelgo gaina baliatu zuen Orica taldeko Annemiek Van Vleuten liderrari eraso egiteko, eta sailkapen orokorra iraultzeko. Jaizkibelgo azken kilometroetan, Merino sasoian zegoela ohartu zen, eta anbizioz erantzun zion egoerari. Jarrera horri esker, etapako eta sailkapen orokorreko laugarren postuak lortu zituen Lointekeko eskalatzaileak, Euskal Herritar onenaren maillotagaz batera. Balmasedarrak azaldu zuenez, «irteeratik egon ziren etengabeko mugimenduak, baina dena Jaizkibelen erabaki zen. Cervélo Bigla taldea ahalegindu zen lehenengoz [Cecilie Uttrup] Ludwigegaz, baina Oricakoek neutralizatu egin zuen; ondoren, Moolman saiatu zen. Orduan konturatu nintzen Oricakoek ia ez zutela indarrik. Ahalegindu nintzen Moolmanren atzetik joaten, baina ondoren egiten utzi nien Oricakoei, mendiko gunerik gogorrenari itxaroteko. Bertan proba egin nuen eta bakarrik lotu nintzen, Annemiek Van Vleutenegaz batera. Halere, jaitsieran joan zitzaidan eta atzetik zetorren Garfooten gurpila hartu nuen. Dena den, niri egokitu zitzaidan tiratzea, berak taldekide bat zeukalako aurretik. Hala, Errenteriara sartu aurretiko maldan, eraso egin eta atzean utzi ninduen. Azkenean laugarrena izan nintzen, baina dena eman duenaren sentsazioagaz eta oso pozik, halako mailako txirrindulariakaz aurrean izateagatik. Postu horrek gainditu egin ditu Biraren hasieran neure buruari ipini nizkion helburuak».

Lointek eta Ugeraga, Kopa lortzeko guran

Datorren aste-akabuan, Espainiako Koparen proba bi egingo dira, Murtziako Roldán herrian, zapatuan, eta Alacanteko Costa Blancan, domekan. Barikuko Bretainiako Morbihan klasikak eta Plumlec-Morbihan sari nagusiak baldintzatuko dute zapatuko etapa; izan ere, elite kategoriako liderra, Lorena Llamas, eta bigarrena, Lointek taldeko Eider Merino, Bretainian izango dira. Bitartean, Alicia Gonzálezek (Lointek) defendatu beharko du lortutako 23 urtez azpikoen maillot gorria; pasa den proban, Alcobendasen lortutakoa. Eginbehar berdina du bere kategorian Sara Martínek; Burgoseko txirrindulari gaztea Sopela-Ugeragaren kidea da. Bestalde, Doris Ruano Lointeken zuzendariak Alcobendaseko ibilbidea kritikatu zuen, arriskutsua zelako.

Sara Martín da burua gazte-mailan. © RFEC

Espedizio aitzindaria, Getxotik Norvegiara

Getxoko Ibilki elkarteak Norvegiako mendi-espedizio berezi batean parte hartuko du. Izan ere, munduan lehenengo aldiz ahalegindu dira ikusmen-dibertsitate funtzionala duten pertsonak goi-mendiko igoera bat egiten, gidariakaz. Espedizioa ekainaren 1etik 5era izango da, Norvegiako Galdhøpiggen mendiko tontorrera (2.469 metro), Eskandinaviako alpeen mendilerroan. Ekimena Madrilgo UNED fundazioak antolatu du, ikusmen-dibertsitate funtzionala duten pertsonakaz egiten duten goi-mendiko gidatze-ikastaroaren barruan. Ikastaro hori munduan dagoen bakarra ere bada. Francisco Buenok zuzentzen du, bera da ONCEko Mendi Taldeko koordinatzaile teknikoa, eta berak idatzi du *Manual de Guiado de Ciegos en Montaña* liburua.

Bizkaiko mendi-federazioak babestu du. ©IBILKI

Talde uribekostarrak nagusitu dira Bizkaiko Txirrindulari Txapelketan

Elite eta 23 urtez azpiko Bizkaiko txapeldun berria da Txomin Juaristi Baque taldeko txirrindulari markinarra. Titulua pasa den maiatzaren 14an lortu zuen, Berriatuan. Atzean, Eiser-Hirumet taldearen kideak izan zituen. Punta Galea eta Duranguesa taldeen bat egiteak bigarren, hirugarren eta laugarren lekuak lortu zituen Bizkaikoan; Markel de la Fuente, Alain Ramírez (Elite kategoria, aurrena izan zen) eta Oskar Malatsetxebarriari esker. Taldekako lehian, Eiser-Hirumet bigarren lekuan sailkatu zen, Caja Ruralen ondoren. Bestalde, Bizkaiko Haur Txapelketa Berangon egin zen, bigarren urtez, pasa den zapatuan. Punta Galeako Irantzu Solagurenek Bizkaiko txapeldunaren maillota jantzi zuen, 2. mailako haur-kategorian. Aimar Gorriñobeaskoa eta Oier Muñiz taldekideak ere podiumera igo ziren.

Sabin Merino fitxatu gura du Panathinaikos talde greziarrak

Uda oraindino heldu ez den arren, daborduko hasi dira agertzen urtaro horretan komunikabideetan ohikoak diren ganora handi bako albisteak. Hala, *As* egunkari madrildarrari arreta eman dio Urdulizko Sabin Merinoren etorkizunak. Euren iturrien arabera, 25 urteko jokalari urduliztarraren egoeraren inguruan galdetu du Panathinaikos talde greziarrak, eta «oso interesatuta» ei dago «Urdulizko aurrelariaren zerbitzuetan», datorren denboraldiari begira. Merinok Athleticegaz dauka kontratua 2019ko ekainaren amaierara arte. Gainera, hitzarmen horren arabera, fitxatuko lukeen edozein taldek 30 milioi euroko klausula bati aurre egin beharko lioke. Ibaiganek eta Sabin Merinok ez diote aipamenik ere egin gaiari. Lesioek baldintzatutako azken denboraldian, Merinok 19 partida jokatu ditu eta gol bat sartu du.

hirukalagun
Hau da zure txokoa!

hiruka zaitez...
eta abantaila askoz goza egizu!

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Non da? *lehiaketa*

SARIA

Xabi Aburruzagaren *Keltik* (2016) diskoa zozkatuko dugu

Xabi Aburruzagaren CDa lortu gura baduzu, maiatzaren 31 (eguaztena) baino lehenago, bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Maiatzeko *saria*
«Akabuko martxea» eta «Dominica» DVDak

Hilabete honetako sari hori HIRUKAlagun eta bazkide guztien artean zozkatuko dugu. Zozketan parte hartzeko, bidali maiatzaren 31 (eguaztena) baino lehenago, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Zelan egin HIRUKAlagun?

Alboko QR kodea eskaneatuz (telefono mugikorraren bidez), edo bestela:

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna/
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

HIRUKA Koop.elk. Martikoena, 16, 2. solairua. 48992 GETXO

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publizitatea helarazteko. Bestelako erabilerek erabiltzailearen aurretiko baimen zehatza behar dute. Erabiltzaileak gura duenean datuok zuzentzeko edo kentzeko bere eskubideak bete ditzake helbide honetara idatziz: hiruka@hiruka.eus

Sudokua

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

						5		1
2		7						6
	8			1		9		
								8
	9		8		6			
		4		7	3			
	3	1		2				5
					7			9
		9			8	2		7

Soluzioa

9	4	3	6	8	2	5	7	1
2	1	7	3	9	5	4	8	6
5	8	6	7	1	4	9	2	3
3	7	5	2	4	1	6	9	8
1	9	2	8	5	6	7	3	4
8	6	4	9	7	3	1	5	2
7	3	1	4	2	9	8	6	5
4	2	8	5	6	7	3	1	9
6	5	9	1	3	8	2	4	7

Guardiako farmaziak, hilaren 25etik 31ra

Barrika
ZULOAGA. Udaletxeko bidea, 2. 946 774 716. Domekan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Berango
EGUIA. Sabino Arana kalea, 20. 946 680 360. Astegunetan, 09:00-22:00 ; eguaztenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Erandio
ARRUTIA. Obieta kalea, 15. ALTZAGA. 944 674 711. Egunero, 09:00-22:00.

DÍAZ. Etxegorri kalea, 3. ASTRABUDUA. 944 170 291. Zapatuan, 09:00-14:00.

GASTEARENA. Meso, 24-26. ASTRABUDUA. 944 175 200. Zapatuan, 09:00-14:00.

TEIJELO. J. A. Agirre plaza, 8 bis. ERANDIOGOIKOA. 944 530 124. Zapatuan, 09:00-14:00.

Getxo
ALZOLA. Arene kalea, 4. ALGORTA. 944 306 570. Astegunetan, 09:00-13:30, 16:30-19:30 eta 22:00etatik hurrengo eguneko 09:00ak arte; zapatuan, 10:00-13:30 eta 22:00-09:00; eta domekako 22:00etatik asteleheneko 09:00ak arte.

ARISTEGUI. Juan Bautista Zabala, 1. ALGORTA. 944 911 798. Astegunetan, 09:00-22:00.

EZQUERRA. Ollarretxe, 27. ALGORTA. 944 303 328. Egunero, 09:00-22:00.

JIMÉNEZ. Illetas, 12. ALGORTA. 944 301 352. Egunero, 09:00-22:00.

LÓPEZ-LINARES. Kasune, 10. ALGORTA. 944 302 632. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

MARTÍNEZ. Basagoiti, 45. ALGORTA. 944 914 632. Domekan, 09:00-22:00.

MORÓN. Bidezabal, 2. ALGORTA. 944 319 007. Astegunetan, 09:00-22:00.

SARRIA. Telletxe, 1. ALGORTA. 944 910 556. Astegunetan, 09:00-22:00.

ARRIOLA. Amaia, 29. AREETA. 944 805 328. Astegunetan, 09:00-22:00.

BAYANO. Ibaigane, 9. AREETA. 944 638 460. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

ELLACURIA. Andrés Larrazabal, 5. AREETA. 944 637 971. Astegunetan, 09:00-22:00.

ANDRACA. Maidagan, 61. GETXO. 944 914 697. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

GALARZA. Aingeruaren etorbidea, 2. GETXO. 944 914 704. Astegunetan, 09:00-22:00.

MONASTERIO. Gorbeia Mendia, 1. ITZUBALTZETA. 944 630 865. Astegunetan eta domekan, 09:00-22:00.

NÚÑEZ. Ibaiondo, 9. ITZUBALTZETA. 944 631 809. Astegunetan, 09:00-22:00.

Gorliz
ABURTO. Itsasbide kalea, 5. 946 775 452. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 09:00-22:00.

ROMERO. Itsasbide, 20. 946 128 941. Zapatuan, 09:00-13:30; eguenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Leioa
NARDIZ. Mendibile, 1. Leioa. 944 800 484. Astelehenean eta eguaztenean, 09:00-22:00.

SÁNCHEZ. Estartetxe kalea, 23. 944 800 802. Domekan, 09:00-22:00.

TIEMBLO. Sabino Arana kalea, 89. 944 803 191. Eguenean eta zapatuan, 09:00-22:00.

ORTEGA. Artaza kalea, 8. NEGURIGANE. 944 608 501. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

ONA. Maiatzaren Bata kalea, 4. PINUETA. 944 630 066. Astegunetan, 09:00-22:00.

SAN ANDRÉS. Larramendi plaza, 2. PINUETA. 946 572 295. Egunero, 09:00-22:00.

Plentzia
ARAMBURU. Erribera, 20. 946 775 301. Astegunetan, 09:00-22:00; martitzenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Sopela
DOLARA. Sabino Arana, 28. 946 129 547. Astegunetan, 09:00-22:00; barikuan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ITURBE. Iparragirre, 3. 946 764 768. Astegunetan, 09:00-22:00; astelehenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ERAZO. Loiola San Andrés, 50. LARRABASTERRA. 946 762 363. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ZUMÁRRAGA. Gatzarriñe, 6. LARRABASTERRA. 944 047 600. Astegunetan, 09:00-22:00.

Urduliz
PARAMO. Aita Gotzon, 9. 946 764 507. Astegunetan, 09:00-22:00.

Hirukira olgetan

SOLUZIOAK:

© Garbine Ubeda



Mendian

Ondoko animalia hauen arteko zeintzuk agertzen dira goiko irudi handian?

Goiko irudian ikusiko dituzun hainbat elementu ez genituzke mendian inoiz aurkitu beharko. Bederatzi dira, guztira. Zeintzuk dira?

Bestalde, bada beste animalia bat paisaian, koadroan jasota ez dagoena. Zein da?

Ezetz asmatu

Osatu esaera zaharra:

ZOZOAK BELEARI,...

3 sudoku

Ipini sudoku bakoitzeko letrak dagozkien lekuan. Hizki bakoitzak behin bakarrik agertu behar du zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzeko.

ZOPA ala **POZA**?

A			Z
		P	
	Z		
O			

B			I
L		B	
	A		

BLAI ala **BILA**?

ZAPI ala **AZPI**?

A	P		
		A	
			I
		Z	

Hau Gosea!

Ezagutzen duzu Herri Urratseko paella ospetsua? Sarako ikastolakoek zerbitzatzen dute eta 600 lagun inguruk jaten dute bertatik, urtero. Aurtengo sukaldaria despistatu xamarra izan zen eta hainbat gauza galdu zituen beharrean zebilela; lagun egiozu horiek bilatzen.

Bilatu

- Lepokoa
- Ugaraxoa (igela)
- Peluxea
- Txanpon-zorroa
- Barraskiloa
- Eulia
- Giltza
- Giltza ingelesa

Zenbat pegatina ikusten dituzu?

Lehiaketa: Non da?

Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista.

NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?

Gaztetxoentzako liburua zozkatuko dugu

Maribel Aiertzaren ***«Jauregiko sekretua»*** *lanaren ale bat daukagu, 10 urtetik aurrerako gaztetxoen artean zozkatzeko.*

Liburua gura baduzu, ekainaren 2a baino lehenago helarazi erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: **hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337**

Arrotza

Hauen artean bada elementu bat gainontzekoakaz bat ez datorrena, zein da?



Pareak bai!

Arriskutsuak ala onuragarriak izan, benetan xelebreak dira mikrobio guztiak. Forma harrigarri eta bitxiak erakusten dituzte.

Ondoko irudi honetan, aurkitu bikoterik osatzen ez duen «xomorrotxoa».

Ondoko lauki honetan, marraztu eta margotu **bakterio zintzo bat**

Eta beste lauki honetan, **birus txar bat**

hiruka
Uribe Kostako astekaria

HIRUKA Koop. elk.
Helbidea: Martikoena, 16, 2.a 48992 GETXO
e-maila: hiruka@hiruka.eus **P.-Ku.:** 171
Telefono-zenbakia: 944 911 337
Publizitatea: Idoia Ibarluzea / Idoia Lorente

Erredakzioburua: Irantzu Sagarminaga
Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Iñigo Fernandez de Martikorena
Argazkiak: Hodei Torres
Testuen orrazketa: Irantzu Sagarminaga

Diseinua: Artefakto
Kudeaketa: Ziortza Merino / Fredi Paia
Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA
L.G.: BI-2022-2014 **ISSN:** 2386-98-95
Ale-kopurua: 8.000 ale **CC-BY-SA**

TOKIKOM
www.hiruka.eus

Flashback

Lehen jaunartzea, 1962ko loraila

Maiatza izan ohi da lehen jaunartze-ospakizun gehien egiten den hilabetea, lehen eta gaur egun. Irudian, orain dela 55 urte, maiatzaren 31n, Itzubaltzeta/Romoko San Jose elizan lehenengoz komuninoa hartu ostean, Maria Dolores dago, gurasoen erdian. Erlijio-ospakizunoi dagokienez, orduko eta gaurko argazkien artean, alde handiegirik ezin antzeman, jantziei begiratuz gero eta...; beharbada, 600 automobila edo ez bada...

Argazkian: Maria Ortega, Maria Dolores Portillo eta Antonio Portillo.

© MARIA ORTEGAK UTZITAKO ARGAZKIA

Uribitakora

ALBE Algortako Bertsolari Eskola

TESTUA
Aitor Fdez. de Martikorena Rodríguez

DOINUA
Hasiko al naiz, hasiko al naiz

ARGAZKIA
Hodei Torres

Uribitakoran parte hartu gura duzu?
Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, ALBEko kideek jarritako bertso eta guzti: hiruka@hiruka.eus

K.O.LPEKA

Muhammad Ali edo Mike Tyson
izango balira legez,
mutil bi gogor dabilz borrokan
indar betean, adorez...
Ezker aldeko laguna, barriz,
barne-solasean berez:
«Saio hontatik, zer fruitu dator?
Parte oneko ezer ez».

Azken boladan, ez dogu argi
boxeoa zer ete dan:
hartu behar dogun kiroltzat edo,
ibilten gara eztabaidan.
Aitor dagidan zer sentimendu
sortu ohi dauan niregan:
nazka apurra, morbo handia
eta gupida segidan.

Kontuz lehiagaz: ezin da jakin
zelan daukon amaiera.
«Olgetan hasi, eta benetan
amaitu» da esaera.
Edozein kolpek eroan gaikez
atoan eromenera;
pauso bat dago atseginetik
min eta damu betera.

Erakunde laguntzaileak:
Getxo bai ezin hobe · Leioa Udala-Ayuntamiento · Erandio Elizateko Udala · Berangoko Udala · Gorlizko Udala · Urdulizko Udala · Plentziako Udala · Barrikako Udala · Lemoizko Udala · Bizkaia foru aldundia diputación foral — Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du · EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO — Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua